



ttipi-ttapa

Xanti UTERGA → 45



Master Erremonte
Txapelketa irabazi du

2015eko urtarrilaren 22a | XXXV. urtea | 630. zenbakia

www.ttipi.eus

1.184 langabe

Langabezia datuak → 9

BORTZIRIAK → 10

518 sinadura mediku
euskaldunak eskatuz

LESAKA → 12

Carlos Gonzalez pediatria
hilaren 30ean Kultur Etxean

ZUGARRAMURDI → 39

Ilar jate solidarioa isunei
aurre egiteko hilaren 31n

SENPERE → 41

Hatsaren Poesia 2015era-
ko lanak aurkez daitezke

BAZTAN

ILBELTZAREN

21-22-23-24 ETA 25

EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

→ 4-5



Irudimena eta eromena bat eginda

Hasia da inauteri aroa eta zenbait herritan dagoeneko ospatu badituzte ere, gehienetan noiz ailegatuko esperoan egonen dira. Asteburu honetatik aitzinera Sunbilla, Leitza, Zubieta, Aurtitz eta Iturenak hartuko dute lekukoa. Ondoko asteburuan Areson izanen dituzte inauteriak, eta Erratzun eta Arizkunen Gizakunde. Otsaileko lehenbiziko asteburuan, berriz, Arantza, Donamaria eta Igantzira ailegatuko da mozorro besta.

→ 21-30

ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

40 urte bete ditu Leitzako Jeiki Abesbatzak



1974an kantuairekiko zale-
tasunak leitzar talde bat
elkartu zuenetik 40 urte
pasatu dira eta bidean,
egoera zailei aurre egin
behar izan badiote ere,
Jeiki Abesbatzak bizirik eta
gogotsu jarraitzen du,
kantuan gozatu eta goza-
razten segitzeko asmoz.

→ 3

ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo
idatzi info@ttipi.eus-era

TTIPI TXARTELA

harpidetza baino merkeagoa da!



TTIPI-TTAPA
aldizkaria **DOAN**

24 aldizkari
urtean

ZOKKETAK
hamabostero

(sarrerak, kamisetak,
diskak, liburuak,
otorduak...)

DESKONTUAK
40 komertziotan

(autoeskolak, tailerrak,
optikak, kiroldegiak,
jatetxeak, dendak,
tindategiak ...)

40€ - 10€ = 30€

(%25 bueltatuko dizute
errenta aitortpena
egiterakoan.
10 euro)

TTIPI TXARTELA
dutenek,
30 euro pagatuko dute
urtean,
Errentaren Aitortpenarekin
10 euro
itzuliko baitzaie

DESKONTUAK

AISIALDIA: Irisami Land.
AUTO TAILERRAK: Berauto | Datucelay
Sansiñena | Zalain Motor. **AUTO ESKOLAK:** Semper.
ARGAZKI-DENDAK: Goiko | Mena | Zaldua.
ARROPA-DENDAK: Bixikiak | Edurne | Fantxike
Ipingi | Juan J. Pikabea | Kattalingomi | Kukuka.
BIZIKLETA TAILERRAK: Katea-Bike.
ESTETIKA ZENTRUAK: Amaia | Arrate.
ETXETRESNAK: Aitzuri. **FOTOK. INPRENTA:** Bortzirudi.
HAURREN GAUZEN DENDAK: Pottoki.
JATETXEAK: Posada Oitz | Elbeteko Posada.
KIROLDEGIAK: Lesakako Udal Kiroldegia.
KIROL-DENDAK: Agara | Iparfa | Zela.
LENTZERIAK: Kattagorria | Maricruz.
LIBURU-DENDAK: Nafarpress | Maimur.
NUTRIZIOA eta DIETETIKA: Oreka | Kimetz | Erika.
OPARI-DENDAK: Alustiza. **OPTIKAK:** Intzuri | Ostargi.
PENTSUAK: Mendaur. **TINDATEGIAK:** Jaione.
TTIPI-TTAPA. ZAPATA-DENDAK: Ostiz | Txinelka | Zangue

INFORMAZIO GEHIAGO:

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7-1 | 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.eus | www.ttipi.eus

Milaka entsegu, ehunka emanaldi eta hamaika eszenatoki ezagutu dituzte urte hauetan. Kantuzaleak beti kantuan, egoera zailetan jeiki eta aurrera egitea izan dute

lema. Urteurrena ere halaxe ospatu zuten, abendu hondarrean Mozarten *Requiema* eskaini baitzuten herriko elizan. Joxe Mari Azpirozek, Jeikiko lehendakariak, azaldu

dizkigu iraganeko eta oraineko kontuak. Eta etorkizunaz ere ari da «45 laguneko familia ttiki bat gara eta argi dugu kantuan gozatu eta gozarazten segi nahi dugula».

Joxe Mari Azpiroz | Leitzako Jeiki abesbatzako lehendakaria

«Loraldia eta lozorroa ezagutu ditu taldeak baina kantua inoiz isildu ez»

Eneritz IRAOLA | LEITZA

Nola sortu zen Jeiki abesbatza?

1974. urtean kantuarreko afizioaren inguruan herriko lagun talde bat bildu ginen. Florencio Iruñia izan zen bultzatzaile eta zuzendaria eta 38 urtez postu horretan jardun du. Abesbatzari emandako ize-na gure egin genuen, herrian antolatzen ziren ekitaldietan talde aktiboa izatea baitzen gure helburua. Horretan aritu izan gara beti lanean. Kultura sustapenean lan egitea eta noski, ongi pasatzea, gozatzea eta gozaraztea da asmoa.

Zein izan da urte hauetako ibilbidea?

Abesbatza sortu berri-tan, lehendabiziko hamar urtetan, bizkor ibili ginen. Leitzako kaleetan hasi, Euskal Herriko hainbat txokotan abestu eta Europan barna zabaldu genituen gure kontuak. Abesbatza lehiaketetan ere parte hartu genuen, Tolosan, Llangollenen, Italian... 1983tik aurrera ordea, sasoi zaila izan zen, jendea lanera edo ikastera kanpora joan zelako eta iritsi ginen maila hori gainditzea zaila zelako. 18 urtez herrian egiten ziren ekitaldietan segi genuen kantuan, herrietik kanpo ez. Baina, 2004an bultzada berezia eman zitzaion berriz



ARGAZKIA: PABLO FEO

Leitzako Jeiki abesbatza 45 kidek osatzen dute, horietatik 44 herritarrek.

abiesbatzari eta orain Nafarroako koruen artean erreferenteak gara.

Zenbat kide zarete?

Gaur egun 45 lagun gara eta Leitza 3.000 biztanleko herria izanda, kopuru garrantzitsua da. Adin guztietakoak, 70 urtetik gorakoak eta jende gaztea ere bada. Horren ondorioz abesbatza bizitzeko modu desberdinak dugu kideok. Adineko haurrentzat bere bizia da abestea, entsegu guztietara joaten dira bakar batera hutsik egin gabe. Jende gazteak izatek berriz, kalitatea eman dio abesbatzari, duela hogeita hamar ur-

IKASKETA METODOAK

«Eboluzioa nabarmena izan da. Duela 40 urte zuzendariak eta beste bik bakarrik zekiten solfeoa. Gaur egun berriz, musika ikasketak dituztenak asko dira, internetek ere erraztasun handiak ematen ditu... Garai batean, belarritz, errepikapenaren errepikapenez ikasten zen. Zorionez errazagoa da orain».

te baino musikalki askoz prestatuagoak baitaude.

Kantuak ikasteko modua ere aldatu da?

Bai, eboluzio nabarmena izan da. Duela 40 urte zuzendariak eta beste bik bakarrik zekiten solfeoa. Gaur egun berriz, musika ikasketak dituztenak asko dira, internetek ere erraztasun handiak ematen ditu... Garai batean, belarritz, errepikapenaren errepikapenez ikasten zen. Zorionez errazagoa da orain.

Zein musika mota lan-tzen duzue?

Denetarik Mozarten abestietatik hasi eta Mikel Laboaren kantuetan-

raino. Lehengo urtean munduko folkloreen inguruko zortzi kontzertu eman genituen. Afrikarretik hasi, israeldarra, errusiarra... denetarik egin dugu.

Nola ospatu duzue urteurrena?

Zerbait berexia egitea pentsatu genuen, gure buruari erronka jartzea. 2008an Orkestra sinfonietarekin Mozarten *Requiema* abestu genuen Leitzan eta Iruñean eta berriro ere *Requiema* lantzea erabaki genuen. Organoaren laguntzaz eta bakarlariak ere bertakoak izatea lortu nahi genuen. Urtebeteko lan-keta izan da eta lortu genuen lau bakarlarrietatik hiru bertakoak izatea. Oso gustura geratu gara emaitzarekin eta martxoan Leireko monastegian errepikatuko dugu emanaldia.

Eta badu etorkizunik?

Leitza herri kantuzalea da eta etorkizuna badu abesbatzak. 40 urte hauetan 120 herritar inguru aritu dira Jeikin kantuan. Talde irekia da abesbatza, interesa duena etor liteke. Afizioa, belarria eta ahotsa izatea eta entseguetara joateko konpromisoa hartzea da eskatzen duguna. Hamar hilabetetan, uztaila eta abuztua kenduta, astean bina entsegu egiten ditugu ordu eta erdi-koak, emaitzak ikusteko lan egin beharra dago.

KULTURA → ESKUALDEKO HIRU HERRITARREK LIBURUAK KALERATU DITUZTE

Literatur haizea indarrez dabil

Baztanen Euskal Nobela Beltzaren astea ari dira egiten estreinakoz ilbeltzaren 20tik 25era

Eskualdeko idazleen lanak eta literatur ekitaldiak askoren esku, begi eta ahotan dabilta azken aldian. Mikel Rodrigiez lesakarrak, Izaskun Zubialde zubietarrak eta Elurre Iriarte arizkundarrak karrika-

ratu dituzten liburuak dituzte hizketagai. Baita Baztango Irakurle taldeak antolatutako proposamen berexia ere. TTIPI TTAPA guztiekin bildu da ilbeltzako literatur uzta jasotzeko asmotan.



kal nobela beltzaz solasean hasi eta tira eta tira, literaturaz konpainian gozatzeko egitarau mardula osatzera iritsi dira. Idazleek ere ez zuten euren burua idazletzat. Irentsi dituen ehunka istorioren bere bertsioa osatu nahiak bultzatuta osatu zuen istorioa batek, haurrentzako irakurgaietan sumatu zuten hutsunea ikusita abian jarri zuen proiektua bigarrenak eta batean eta bestean errandakoak karanbolaz liburu batean bilduta ikusi ditu hirugarrenak.

Eneritz IRAOLA

Beltzez jantzita dago Baztan, botereak dituzten gizakien istorioak otu zaizkio Mikel Rodrigiezi, Mari eta hamaika pertsonaia mitologikoren bisita izan du Izaskun Zubialdek eta Elurre Iriarte kirika ari-

tu da hontaz eta hartaz... badute literatur zaleek non aukeratua.

Haizea indartu ohi den moduan, erdi ustekabeaz gauzatu diren ideiak izan dira aipatu digute guztiek. Baztango Irakurle taldekoek euren solasaldietan eus-

EUSKAL NOBELA BELTZAREN INGURUAN BADA NON GOZATU

BAZTANGO IRAKURLE TALDEA | BAZTAN

«Euskal literaturak duen aukera anitza erakutsi eta nobela beltzari buruz gogoeta egitea da asmoa»

Nondik sortu zitzaizuen ekimen hau antolatzeko ideia?

Idazleekin solasean ekimenean parte hartzen dugun batzuen artean sortu zen ideia. Iraileen biltzen hasi ginen eta genero horri buruz genekiena konpartitzen eta aldi berean interesa haunditzen. Hasmentan ez genekien egun bateko afera izanen zen, asteburu bat... azkenean bortz eguneko astea osatu dugu eta holaxen sortu zen ekimena.

Zein helbururekin antolatu duzue?

Helburu bat da jendeari erakustea euskal literaturak aukera anitza duela. Horren barnean nobela beltzak baduela bere tokia eta badela aspalditik genero hortako euskal literatura. Hortan ari ginela ohartu ginen baztandarra den Mariano Izetak bere lehen-dabiziko nobela genero hontakoa idatzi zuela. Eta ohartu gara ere aspalditik agertzen dela Baztan zenbait nobeletan. Beraz, holako ekimena antolatu dugu, guzi hori agertzearekin batera, generoari buruzko hausnarketa egiteko balio dezan.

Piztu du interesa?

Baietz iruditzen zaigu. Egia da irakurlea, euskalduna eta nobela beltza-zalea izatea arras mugatua ematen duela, baina antolatu dugun moduan iruditzen zaigu zehatza bezain irekia dela. Dauden ekimenean edozeinek gozatzeko ahal du eta sarean eta inguruan somatzen dugunez, jendeak interesa erakutsi du.

Zergatik genero zehatz hau?

Eta zergatik ez? Literatura genero honek badu bere ibilbidea eta ohartu gara arras interesgarria dela. Baliogarria izan da (eta da) gizartearen egoerak islatzeko, kritika soziala egiteko eta dudarik gabe literaturaz aritzeko. Ohartu gara euskal nobela beltzak badue-



la publiko fidel bat eta interesgarria iruditzen zaigu bertze irakurzaile eta idazleekin batera guzti honi buruz hausnartzea, solastea..

Euskaraz nobela beltzak izan du iraganik, badu orainik eta etorkizunik?

Iragana hurbila bada ere, badu, dudarik ez eta garapen bat izan du. Etorkizuna izanen duela ez dugu dudarik egiten. Ikusgarria izanen da idatzi eta itzuli diren nobela beltzekin antolatu dugun erakusleihoa. Egin denarekin eta egiten ari denarekin argi ikusten da aitzin eginen duela.

EGITARAUA

Ilbeltzak 21

Idazleekin solasean Eneko Aizpuruarekin *Herensuge gorriaren urtea* liburuari buruz. Anizko elkartearen 19:00etan.

Ilbeltzak 22

Mariano Izetaren *Dirua Galgari* liburaren **berragitarapenaren aurkezpena** Arizkunenean 19:00etan. Ondotik *Mariano Izeta: Euskal nobela beltzaren abiapuntu solasaldia* Jon Abirlekin.

Ilbeltzak 23

Baztango kontu beltzak Gaztetxean 20:00etan.

Ilbeltzak 24

Arizkunenean 11:00etan **Mahai ingurua:** I. Borda, J. Alonso eta M. A. Elustondorekin *Beltzetik Beltzera* nobelaz eta euskal nobela beltzaren **erakusleihoa**. Bazkaria Eskisaroi jatetxea eta **kafe aurkezpenak:** Igerabide eta Joseviskyren azken lanak. 20:00 susmagarrien gaua Jauregiartearen.

Ilbeltzak 25

Kronika Beltz baten ibilaldia Amairko plazatik abiatuta 11:00etan eta 13:00etan **Bertso Trama**.

AZKEN HILABETEETAN LIBURUA KALERATU DUTEN ESKUALDEKO IDAZLEEKIN SOLASEAN

Mikel RODRIGEZ | LESAKA

«Haurra nintzenetik zurrupatu dudan guztia atera dut liburuan, horregatik fikzioa behar zuen izan»



Bi urte pasatxo eman ditu Mikel Rodrigezek bere lehen eleberria idazten. Metodologia eta diziplina zorrotzik gabe «istorioa hasi eta bukatzea» helburutzat hartuta. Bukatutakoan Fernando Murillo idazleari bidali zion osatutakoa eta Garmin argitaletxeak eman dio liburua argitaratzeko aukera. Fantasiako anime eta komiki zalea da betidatik, «bereziki botere bereziak dituzten gizakiei buruzko istorioen zalea» azpimarratu digu. Garbi zuen egunen batean zerbait idazten bazuen genero horri lotua izanen zela «ezinezkoa» baitzaio «fantasiarik ez duen zerbait idaztea». Komiki, liburu eta filmetatik jasotzen zituen istorioak «aunitzen gustatzen zitzaizkidan eta nik ere nire bertsioa osatu nahi nuen» azaldu digu. Berez, nobela grafiko bat osatzeko gaitasuna izatea gustatuko litzaiokeela aitortu digu «baina marrazteko gaitasunik ez dut eta idaztea eskura nuenez, buruan sortzen nituen irudiak hitzez jarri ditut». Akzioz beteriko istorioa osatu du eta indar handiko pertsonaiak baliatu ditu horretarako. «Istorioa bera baino lehen, pertsonaiak jaio ziren. Hagitz karakterizatuak izatea nahi nuen, identifikagarriak izatea, izaera, pentsaera zehatz bat argi adieraziko zutenak. Abiapuntu hori hartu eta marko bat osatzen joan nintzen». Berak idatzitako istorioa bitan zatitu dute eta karriketan orain lehen zatia dago, laster helduko da bigarrena. Aratzen istorioak segidarik izanen duen galde-tuta «berez aukera ematen du. Idazteko baldintzak aldatu eginen lirateke ordea. Atea ez dut itxia baina ikusiko da zer datorren».



Izaskun ZUBIALDE | ZUBIETA

«Gure ondare kulturala bizirik mantendu eta mitologiarekin lotutako ipuinak eskura jarri nahi genituen»



Euskal mitologia. Haurrentzat ipuinak bilduma kaleratu dute Izaskun Zubialde zubietarrak, Bakarne Atxukarro irundarrak eta Asun Egurza barañaindarrak. Hiru egileak amak dira eta euren haurrei irakurtzen zizkieten ipuinen artean mitologiarekin loturik ez zegoela konturatu zirenean «elkartu eta proiektua aurrera ateratzea erabaki genuen, gure ondare kulturala bizirik mantentzeko helburuarekin». Hamar ipuinek osatzen dute bilduma «euskal mitologiako pertsonaia desberdinak eta gure arbasoek naturan gertatzen ziren gauzen zergatia nola ulertzen zuten adierazten dutenak ere bai, irakaspen batekin». Bilduma honetan ilustrazioek ere garrantzia handia du te «haurrek manipulazioa dute gustuko, ipuinean aurrera eta atzera ibiltzea, marrazkiak ikusi eta beraien irudimena lanean jartzea. Horretarako marrazketa bisualki oso erakargarria sortu behar da». Abenduan 3 egunez dohainik jarri zuten eskuragarri Amazon atarian eta 13.000 deskarga izan zituzten «inguruko herrieta-koak baina baita Txile eta Argentinatik ere». Orain paperean eta Amazonen dago salgai eta sare sozialetan ere presentzia handia dute. Hizkuntza ez dute muga izatea nahi eta liburua euskara eta gaztelerez kaleratu eta frantsesez ere prest dute «garrantzitsuena belaunaldiz belaunaldi iritsi zaigun ondare kulturala transmititzea baita». Helburua bete dutela diote «gure haurrak ipuinak entzuterakoan disfrutatzen ikusi, pertsonaia mitologikoak ezagutzera eman eta munduko hamar mila haurrek baina gehiagok gure ipuinez gozatu ahal izatea lortu dugu».




Elurre IRIARTE | ARIZKUN

«Gai anitzei buruzko iritzia, bizipen anitzei buruzko sentipena... testu-merkatu bat da liburua»



Xorroxin irratitik Di-Da tartean parte hartzeko gonbidapena onartzea izan zen *Kirika FM. Bizi dugun munduei begira* liburuaren abiapuntua. Berea ez dela idazteko afizioa argi utzi digu hasieratik «nirea gehiago da ingurua kirikatze-ko-kirikatze-ko afizioa eta solastekoa». Ustekabean iritsi zitzaion liburua osatzeko proposamena «irritati tarte horretan errandakoak interesgarriak iruditu zitzaizkien Metaziri aldizkari kolektiboko kideei eta gonbidapena egin zidaten liburu batean biltzeko». Liburuak eskuratzen duenak hortaz «ahoz errateko idatziak izan diren testuak, motxak, irakurtzeko erraxak direnak eta ahal den neurrian, kritika eta baikortasuna elkartzen dituenak» topatuko ditu. Gai anitzei buruzko iritzirik dira, baina normalean hurbilekora joz «zerbaitek nire begirada biltzen du eta kolpe hortan izaten dudana sentsazioa kontatzen dut. Elurreren begiradak «kritikatze-ko joera» duela erran digu, «radarra beti piztua, baina maiz proposamen batekin, hobetzeko aukera baldela sinesten dudalako». Ikuspegi baikor hori gailentzen da liburuan, «Dena ezko-rran ikusten badugu, alde ona edo alde bete ikusi gabe, galduak gara. Hori bai, alde hutsa ere ikusi behar da, bertenaz errealitatearen alderdi bat galtzen dugu eta hori ez da modua». Bertze zerbait argitaratu ote duen galde-tuta hauxe erantzuna «bai to! Ez dut uste. Duela bi urte galdera hau egin eta gauza bera erantzunen nuke, beraz bertze karnabola bat suertatzen bada orduan ikusiko! Nire baitako mundu guztiak bizita, laguna, maitale, ama, ahizpa, herritarra... izanda, ez dut astirik».





Nire txanda
Joseba URROTZ

Bakezaleak gara

Gogoan dut gaztetxo nintzenean, nola izaten ziren herritarren arteko diskusio eta kapitak, batzutan elkar joka hasi arte, mugari, bide, eta abar zirela medio. Gobernuko mendizainarekin borroka izan zuenik ere bazen...

Gaur egun holako gutti aditzen ditudut, muturjotzerik ez, bide edo ostatu bazterrean oihu edo eztabaidarik ez. Baretu dira urak, zibilizatu gara... Bai ote? Ez nago seguru hala denik. Gaur egun ere bada inori aipatu gabe bideak ixten duenik, baimenik gabe eraikinak egin, mendian bertzeen ardiak zakurrez aizkatu, edo itsusiago, etxeren batean gordeka sartzen denik ere akaso. Baina holako gertakarien aitzinean hobe deus ez erran, isiltasuna, bakearen izenean, Mafiarekin bezala. Bakoitzak komeni zaiona isilka bada ere egin, eta tira. Udal edo Mankomunitateko bileratan ere maiz ikusia: barrenean itxuraz, denak konforme, eta kanpora ateri orduko, bizkarretik ehundakoak eta bi erraka bertezendako...

Ez ote da hobe oihu edo muturrekoren bat, gauzak aurrez-aurre egin eta erran, gordeka eta isilka ibili baino?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Je suis Charlie, ni Jon naiz

Ez al da iraingarria portadan orduko Asturiasko printzeak larrutan agertu behar zituen aldizkari satirikoa debekatu, Egin, Egunkaria, Ardibeltza... itxiarazi edo, urrunago joan gabe, Auzitegi Nazionalaren atarian irudi batzuk TTIPI-TTAPA telebistarako grabatzeagatik Jon Abril auzibidean jarri zuen Espainiako Gobernuko kideak adierazpen askatasunaren alde agertzea Parisen?

Nabarmentzekoak



Xanti UTERGA
Doneztebeko erremontelaria

Master txapelketa irabazi zuen urtarrilaren 10ean, finalean Endika saldiastarrari 30-24 irabazita. Txapel hau lortzen duen hirugarren erremontelaria da, Ezkurra eta Urrizak bina baitituzte.



Joxe Mari ELGORRIAGA
Irrisari Landeko gerentea

Adacen, Garun-kalte hartuaren Nafarroako Elkartearekin elkarlan hitzarmena sinatu du Igantziako Abentura Parkeak. Lehentasuneko sarbidea izanen dute Adaceneko kideek.



Dolores REDONDO
Sagardotegi sasoiaren ireki du

Misteriozko trilogiaren bidez Baztango bazterrak ezagutzera eman dituen idazleak txotxeko sagardotegi denboraldia ireki zuen ilbeltzaren 16an Lekarozko Larraldean.

Aztera begira → 2005-I-27 / TTIPI-TTAPA 390 zk.



Lehen txapel ofiziala Migel Mari Urrutia saldiastarrarentzat

Bi urte eskas lehenago debuta egin eta 21 urterekin bere lehen txapel ofiziala jantzi zuen Migel Mari Urrutia saldiastarrak duela hamar urte, Zeberio II.aren bikote eginez. Lehendik zenbait torneo ere irabaziak zituen: «Denak ilusio handia egin didate, denak izerdia kostata lortuak dira. Azkenekoa garrantzitsua da, fama handikoa, baina ilusioa denak!» zioen Urrutiak. Debutaz geroztik hobetzen ari zela ere argi zuen: «Denean zerbait hobetu dut: sakea, segurantzia, pilota gutxiago galdu, hobekiago kokatu, jokua eta maila pixko bat hobetu dudala iruditzen zait».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kulturako Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Terrorismoa

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Parisen gertatu den atentatuaren aurrean, hausnarketa batzuk egin nahi ditut. Badakit gaia potoloa eta zaila dela. Hasteko, argi eta garbi azaldu nahi dut halako atentatuaren aurka nagoela, ez ditudala onartzen, gaitzesten ditudala, ezesten eta nahi den guztia. Jarraitzeko, esan nahi dut, nire elkartasun osoa adierazten die-dala biktima guztiei: hildako, zauritu, senide, lagunei, eta abar. Aurrera segituta, jakinarazi nahi dut adierazpen askatasunaren alde nagoela, eta mota horretako ekintzak eginda, ez dudala uste deus onuragarrikerik lortzen denik. Orain estatu eta gobernu handi eta boteretsuek jarraituko dute predikatzen, batasun nazionala behar dela, terroristen aurrean ez dela batere amorerik eman behar, arma, armaden eta polizien indarraren bitartez garaitu behar direla terroristak, ez dela milimetro bat bera ere atzera egin behar, eta abar, eta abar. Hemendik aurrera, musulman eta etorkin ororen giza eskubide guztiak gutxiago errespetatuak ikustea ere ez litzateke inola ere harrigarria izanen; lehenago ere ikusiak gara antzeko egoerak.

Joera erraza izaten dugu pentsatzeko arrazoi guztia alde bakar batean dagoela, alegia, talde batek egia osoa duela eta besteak ez duela deus ere, bigarren hau zeharo oker dagoela eta hobe duela arrastorik ere utzi gabe behin betiko desagertzea. Baina, zoritxarrez edo zorionez, orain arteko historiak erakutsi eta irakatsi digu, arrazoi eta egia guztia nekez egoten dela alde bakar batean, baizik eta banatuta. Egon liteke gehiago alde batean bestean baino, baina, segur aski, beti egonen dira banatuta alde guztietan egia, arrazoia, eta abar, neurri handiago edo txikiagoan.

Nire ustez, mundu honetako estatu eta gobernu nagusiek (Ameriketako Estatu Batuek, Frantziak, Italiak, Alemaniak, Erresuma Batuak, Errusiak, Txinak, Japoniak, Espainiak, e.a.) gogoeta sakonak egin beharko litzukete, jakiteko eta ulertzeko zergatik agertu ahal diren munduan halako talde terroristak, jite horretako ekintza basatiak egiten dituztenak; zerk eramaten ditu pertsona horiek halako basakeriak gauzatzera?

Nik pentsatzen dut, estatu eta gobernu handi eta boteretsu horiek, badutela zer pentsatu eta zer hausnartu, ikusteko dena oso ongi egin ote duten munduko beste estatu eta nazio ahulen aurrean. Ez ote duten jokatu oso demokrazia gutxiarekin, giza eskubide asko zapalduta, estatu eta nazio ahul horien aberastasunak zilegi ez den moduan ustiatuz eta lapurtuz, nagusikeriaz jokatuta... Ni sinetsita nago, lehen munduko esaten dugun horren politikari, militar, polizia, bankero, finantzari askok, eta abarrek, autokritika ugari eta sakonak egin beharko litzuketela, atentatu handi hauen aurrean. Baina hau argi eta garbi geldi dadila, honekin ez ditut inondik ere justifikatu nahi halako erailketak.

Elkarrin eta Lokarrin gauza bat aspaldian ikasi nuen, alegia, terrorismoa praktikatzan dutenei, burugabeak, ganogabeak eta txoriburuak deituta, edota halakotzat hartuta ez dela arazoa batere konpontzen, eta bai, ordea, berarekin hitz eginda, negoziatuz, konbentzitzen, hitzarmenak eta akordioak eginez, eta abar.

Zure bizitza eraiki

Edurne ARRAZUBI LABIANO

Malerrekako Osasun Etxeko gizarte langilea

Gure burua osasuntsua sumatzea, gurekin eta gure bizitzarekin satisfakzioa sumatzea bada ere.

Hortarako, inportantea da zure neurriko bizitza eraikitzea. Hemen dituzu aholku batzuk:

- Orekatu etxe barreneko eta kanpoko lana, aisialdia, harremanak...Izan denbora zuretzat, gozatzeko, atsedenerako.
- Zaindu zuretzat garrantzitsuak diren harremanak: lagunak, familia, bikotea,...
- Egutero, gauean adibidez, hartu minutu batzuk egun hartan pasatu dituzun gauza onak burura ekartzeko. Noizean behin geldi zaitez zure egoera ebaluatzerako eta emaitza baimez zure buruari aldatu beharrekoa aldatzeko.
- Zure bizitzan dauden gauza txikiez edo egunerokotasunatakoaz disfrutatu. Bilatu haie-tan ilusioa eta magia.
- Ausartu gauza berriak probatzera, erosotasun eremutik atera, eta gozatu.
- Emaitza lanari dago-kion tokia eta garrantzia zure bizitzan.
- Emozio ezberdinak bizitzeko baimena hartu. Errespetatu zure emozioak eta onartu zure sentimenduak.
- Kontaktu fisikoaz gozatu. Besarkatu, muxukatu, laztandu, ukitu, ...Beti bestea eta zure burua errespetatu.
- Pentsatu: nire denborarekin, zer egin nahi dut? Hausnartu benetan zer egin nahi duzun, eta aurrera! Hori bai, zure buruari muga eta exijentzia errealki jarri.

«Zaindu zure burua, zu zara eta zurekin denbora gehien pasatuko duen pertsona. Hortaz, zure burua tratatu lagun hoberena tratatuko zenukeen bezala»

- **Zaindu zure burua. Zu zara zurekin denbora gehien pasatuko duen pertsona.**
- **Zure burua ongi tratatu, lagun hoberena tratatuko zenukeen bezala.**



Prentsatik bildutakoak

«Zergatik sartzen da jendea honelako elkarte batean? Beharra duen jendea dagoela ikusten duzula, honelako zerbitzurik ez duela eta bizitzan zentzua duen zerbait egin beharra dagoelako, bertzeendako baliagarria den zerbait (...). Programa arrakastatsua izan da eta, horren erakusgarri, larunbat arratsaldea garrantzitsua izaten da taldearentzat».

Maria TAMAYO

Xauliko hezitzailea
D. NOTICIAS 2015.01.14



«Futbola ez da kirola egitea bakarrik, heztea, balore batzuk eta bizitzarekiko beste jarrera bat ematea ere bada. Taldean lan egitearen garrantzia ere ikasten dute, denen laguntzarik gabe ez baitira emaitza onak ailegatzeten. Futbola konpetitza eta irabaztea da, baina baita errespetua eta kiroltasuna ere. (...) %60a fisikoa da eta gainerakoa beste gaitasun batzuk».

Jose Luis ARRIZURIETA

Aurrerako entrenatzailea
D. NOTICIAS 2015.01.14

11 galdera labur**Nola aurkeztuko zenuke zure burua?**

Gaztelun bizi den 17 urteko neska arrunt eta alaia naiz.

Zein afizio dituzu?

Afizio zehatzik ez dut baina zaldian ibiltzea asko gustatzen zait.

Administrazio ikasketak egiten... zer moduz moldatzen zara zenbaki artean?

Egia erran uste nuena baino hobe moldatzen ari naiz, nahiko kontent nago ikasketekin. Hasiera batean gehien gorroto nuena kontabilitatea zen baina denborarekin gustoa hartzen joan naiz.

Zaldi gainean ere maiz ibiltzen omen zara...

Ni jaiotzerako aitak zaldiak bazituen, eta inguruan ikusita ttikitatik gustatzen joan zitzaidan zerbait izan da.

Inguruan gustuko txoko bat?

Herriko mendiak, batez ere Txaruta ingurukoak. Bertatik bista aunitz badira eta eguraldi onarekin itsasoa ikusten da.

Asteburuko planik gustukoena?

Besta izanez gero besta.

Inauterizalea zara?

Bai pixka bat bai. Doneztebeko-
etara joaten naiz.

Bidaiatzea gustuko duzu?

Gustatu bai baina ez dut aukera haundiegirik izan. Talavera de la Reina oso polita iruditu zitzaidan.

Gustura ezagutuko zenukeen tokia?

Amerikako Estatu Batuak.

Etorkizuna nola ikusten duzu?

Ez dakit oraindik kurtso hau bukatzean zer ikasiko dudan, baina espero dut goi mailako ikasketak bukatzerako lan egoera pixka bat hobetzea.

Amets bat?

Espainiar arraza garbiko zaldi bat izatea gustatuko litzaidake baina zaila da.




Izaskun LEKUBERRIA GAMIO → Gazteluko gaztea

Irakurleak mintzo**Eskerronez**

Xabier Zubieta, Loro Pika-bea eta Xabier Saralegiaren familien izenean

Berriro ere eskerrak emateko beharrean

sentitzen gara, eta ez gara aspertuko. VIII. Mendi Egunean antolatzen, laguntzen eta partehartzen ibili zareten guztioi bihotz bihotzez mila esker.



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**



GIZARTEA → AZAROAN BAINO 1 GUTTIAGO

1.184 langabaturekin akitu zen urtea

2013ko abenduan baino 213 guttiago

TTIPI-TTAPA

2014. urte bukaeran 1.184 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, azaroan baino baino bat guttiago. Azkeneko hiru urte bukaerei erreparatuta daturik baikorrena da, erraterako, 2013 urte bukaeran baino 213 langabetu guttiago baitira, baina, aldi berean, 2010eko urte bukaeran baino 54 gehiago dira oraindik.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 574 lagun daude langabezian, azaroan baino

8 gehiago. Adin tarte horretako emakumeen artean ere azaroan baino 8 gehiago daude langabezian (508). Beraz, gazteen artean jautsi da langabezia: 25 urtez beheitiko gizasemeen artean 9 lagun guttiago daude langabezian (61) eta azaroan baino 8 emakume guttiago (41).

Zerbitzuen arloak segitzen du langabezia gehien izaten, eta abenduan, gainera, zortzi gehiago pilatu ditu (808). Industria arloan, aldiz, 8 langabetu guttiago daude (159). Eraikuntzan, berriz, 7 langabetu gehiago daude, 129. Nekazaritzan ere 5 lagun gehiago daude lanik gabe (31), eta aitzinetik lanik egin ez du-

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2014ko abendua

Herria	Populazioa 2013	Lanik gabe guttira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	120	7	2	5
ARANTZA	634	21	9	12
ARESO	271	7	3	4
BAZTAN	7.974	298	144	154
BEINTZA-LABAIEN	240	12	5	7
BERA	3.829	166	78	88
BERTIZARANA	614	37	19	18
DONAMARIA	437	15	9	6
DONEZTEBE	1.681	105	65	40
ELGORRIAGA	225	13	4	9
ERATSUN	159	8	3	5
ETXALAR	829	27	12	15
EZKURRA	151	8	3	5
GOIZUETA	763	41	21	20
IGANTZI	627	16	4	12
ITUREN	513	31	16	15
LEITZA	2.889	160	77	83
LESAKA	2.784	123	69	54
OIZ	144	8	3	5
SALDIAS	114	8	5	3
SUNBILLA	627	32	21	11
URDAZUBI	380	7	1	6
URROZ	181	4	2	2
ZUBIETA	316	17	7	10
ZUGARRAMURDI	220	13	9	4
Denetara	26.722	1.184	(%49,92) 591	(%50,08) 593

tenen artean 13 guttiago daude langabezian (57)

2014AN ZERBAIT HOBETU DA EGOERA BELTZA

2013. urtea 1.397 langabaturekin bukatu ondotik, 2014ko urtaririla berriz ere ilbeltza

izan zen eta 98 lagun gehiago izan ziren langabezian, 1.495. Otsailean 1.462ra jautsi zen (-33); martxoan 1.446ra jautsi zen (-16); apirilean jautsiera nabarmenagoa izan zen eta 1.342 zeuden lanik gabe (-104); maiatzean

1.279 (-63); ekainean 1.177ra jautsi zen (-102); uztailen 1.165 (-12); abuztuan 1.168 (+3); irailean 1.170 (+2); urrian kopururik onena, 1.156 langabaturekin (-24); azaroan 1.185 (+29) eta abenduan bat guttiago.

BORTZIRIAK

GIZARTEA → BORTZIRIETAN OSASUN KANPAINA

Mediku eta pediatra euskaldunak eskatuz 518 sinadura

Lesakako Osasun Zentroan aurkeztu dituzte

TTIPI-TTAPA

Bukatu berri da Bortzirieta egin den medikua edota pediatra euskalduna eskatu nahi dut izeneko kanpaina, eta parte hartze handia izan dela azpimarratu behar da. Guztira 518 eskaera orri jaso dira eskualdean. Emaitza onak dira benetan, kanpaina oso arrakastatsua izan dela esan nahi du horrek. Lortutako eskaera orri guztiak Lesakako Osasun Zentroan

eramán dituzte Ander Almandoz, Bortzirieta-ko Euskara Mankomunitateko lehendakaria eta Maider Arrieta, lehendakari ordeak urtarilaren 14an.

UEMaren eta Bortzirieta-ko Euskara Mankomunitatearen eskutik abiatutako egitasmo honek osasun alorrean gartzen diren hizkuntza-politikak aldatzea du helburu, eta gehiago zehaztuz, familia-medikua edota pediatra erdaldunak dauden herrietan profesional euskaldunak bermatzea da helburua. Bultzatzaileen esanetan "kanpainaren asmoa ez da izan, inondik inora, Bortzirieta-ko osasun zentroetako lan-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Ander Almandoz eta Maider Arrieta, Bortzirieta-ko Euskara Mankomunitateko lehendakaria eta lehendakari ordeak, sinadurak Lesakako Osasun Zentroan aurkeztu zuten.

gileen kontra egitea, hai-ek euskaraz jakitea eta, modu horretan, herritarrei euskarazko zerbitzua eskaintzea baizik". Momentu honetan profesional horiek hizkuntza eskakizunik ez dutenez, egoera horri ir-

tenbidea ematea lortu nahi da. Horretarako plantilla organikoan behar diren aldaketak egin ditzaten eskatu nahi izan da bukatu berri den kanpaina honen bidez.

Sinadura gehienak azaroaren amaieran bil-

du baziren ere, azken ahalegin batzuk egin ziren abenduaren amaieran eta urtarilaren lehenbiziko asteburuan, eta orduan ere lortutako eskaera orriek esker jaso dira guztira 518 sinadura.

FLASH

Kontseiluaren deialdia

Lesakako Udalak Koskontako bidea 7, 2.ean duen egoitzan Kontseiluak apirilaren 25ean Iruñeko Anaitasun antolatuko duen ekitaldiaren berri emanen du urtarilaren 22an, ortzegunarekin, 19:00etan, eta aitzinetik herrietan egin beharko den lanketaz ere eztabaidatuko da. Herrietako euskara batzordeetako kideentzat ez ezik, Bortzirieta-ko euskaltzaleentzat bilera irekia izanen da.

Korrika 19

Korrikaren 19. edizioa ere martxan da. Horren aurkezpena eta Bortzirieta-ko Korrika batzordea sortzeko bilera urtarilaren 28an izanen da, asteazkenarekin, 18:30ean, Berako Beralandeta eraikinean. Bilera horretara ere, euskara batzordeetako kideaz gain, gai horretan aritzeko gogoia duten euskaltzale guztiak gonbidatuak daude.



**KALITATE MAXIMOA
PREZIORIK HOBERENEAN**





AN ENERGÉTICOS LESAKA
Alkaiaga Industrialdea • Banarta, 18
(N 43° 16' 50" - W 1° 41' 40")

**GASOLIO A
prezio
ezin hobek**

ESKAINITZA BEREZIA!!
5 zentimo/litro deskontu zuzena
bankuko txartelarekin ordaintzerakoan

ETA GARRAIOLARIANTZAT...
Kafea+pintxo edo ardoa+pintxo 250€ gasolio erosita
Eguneko menua 600 euro gasolio baino gehiago erosiz gero

Erosketa-tiketa aurkeztu behar da*

*Eskaintza baliagarria urtarilaren 11 arte. Promozioa baliagarria ez da izango urtarilaren 11 baino lehen. Erabiltzaileak ez du izan behar ezin izan behar. Erabiltzaileak ez du izan behar ezin izan behar. Erabiltzaileak ez du izan behar ezin izan behar.

ERABILGARRI EGUNEKO 24 ORDU

GIZARTEA → URTARRILAREN 30A BITARTE

Musikari ttikiak tailerrera izen emateko epea zabalik da

0 eta 3 urte arteko hurrei zuzendua

TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak, Udalaren laguntzaz 'Musikari ttikiak' musika tailerra antolatzen du, 0 eta 3 urte bitarteko hurrei zuzendua. Izen emateko epea ilbeltzaren 30ean bukatuko da.

Matrikularen prezioa 30 eurokoa izanen da eta plaza mugatuak dira, saio bakoitzean 20 haur gehienez. Hain zuzen, ordu bateko lau saio egingen dira otsailaren 27an eta martxoaren 6an, 13an eta 27an, arratsaldean. Izen emateko 012 telefonora deitu behar da (Nafarroatik kanpo deitzen dutenek 948217012 telefonora).

Goizuetara mendi ateraldia

Agerra mendi taldeak urtero antolatzen duen Bera-Goizuetamendi ibilaldia otsailaren 1ean egingen da. Urtarrilaren 30a baino lehen

eman behar da izena elkartearen edo 948 630362 telefonora deituz (gauetz).

Agerratik (7etan abiatuko dira mendizaleak) eta Aginatik oinez (08:15ean autobusa hartu Agerran eta Aginarraino hurbilduko ditu mendizaleak) edo Goizuetara autobusez (11:00etan abiatuta elkartetik) egin daiteke bidetia eta Umore Ona elkartearen bazkalduko duten denek. Bertan ordainduko da bai bazkaria, baita autobusa ere.

Ipuin kontalaria

Estitxu Mentaberri haurrentzako ipuin kontalaria izanen da urtarrilaren 23an, ortziral arratsaldeko 6etan herri liburutegian.

Musika kontuak

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolaren entzunaldiak joan den astean hasi ziren, biolin entzunaldiarekin.ASTE honetan perkusio eta gitara entzunaldiak izan dira. Hilaren 27an, 17:30ean haize instrumentuen entzunaldia izanen da eta 28an,



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herriko kenpo kai azterketak kiroldegian egin dituzte

Euskal Herriko kenpo-kai azterketa egin zuten Toki Ona kiroldegian. Neska-mutiko pila bat aurkeztu zen azterketa egitera eta maila ona erakutsi zuten, denek gainditu baitzuten. Argazkian azterketan parte hartu zuten Berako ikasletako batzuk agertzen dira, pozik lan handia egin ondoren saria lortu dutelako, beren irakasle diren Izei Gillenea eta Koro Iriarterekin. Aupa neska mutilak!!



UTZITAKO ARGAZKIA

300 lagunek parte hartu zuten VIII. Mendi Egunean

Kirol orrialdean informazio zabalagoa duzue, baina ezin aipatu gabe Mendien Egunak izandako arrakasta. Oinez, korrika, eskalada tailerrean eta bertze ekitaldietan 300 lagun baino gehiagok hartu zuen parte. Santa Barbarako igoe-ra-jautsieran 56 bikotek eta 2 hirukotek osatu zuten 5,5 km-ko ibilbidea. Egun honetan sailkapena izaten da guttienekoa, baina zirkuitua egiten bizkorrenak Fernando Etxegarai eta Joseba Larralde herritarrek izan ziren (25:20).

18:00etan txistu entzunaldia. Bertze aldetik,

Bera kantari ekitaldia hilaren 31n egingen da, la-

runbatean 19:00etan Illeketatik abiatuta.

**BILTEGIA** 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidaiak, 76 - etan 21-22
31780 BERA

**BAR Botxo OSTATU**
Zelai - BERA - 948 630 052

**JANTZE-GOZTEGIA**
948 630 786
Altzale, 19 - BERA

**okaNe**
HARATEGIA / URDAITEGIA
Txi/Fax: 948 630 018
Kantaberri 12 - BERA

LESAKA

GIZARTEA → URTARRILAREN 30EAN HARRIONDOAN

Carlos Gonzalez pediatrik solasaldia eskainiko du

Umeen maitasun beharraz ariko da

Aitor AROTZENA

Umeen maitasun beharra gaiari buruzko solasaldia eskainiko du Carlos Gonzalez pediatria ezagunak urtarrilaren 30ean arratsaldeko 6etan Harriondoa Kultur Etxean. Sarrerak salgai daude Lesakako Dasya zentroan, Xagu liburudendan eta Oreka belardendan, Berako Haritza belardendan eta Doneztebeko Kimetz belardendan (18 euro).

Bikoteari haurdunaldian, erditzean eta erditze ondorenean laguntza eta sustengua emateko helburuarekin lan taldea osatu da Bortzirietan, amatasun eta aitatasunerako prozesuan jasaten diren aldaketa fisiko, emozional eta mentalen aitzinean ongizatea bideratuz, hainbat ikuspuntu jorratuta. Urtarrilaren 4an Harriondoko liburategian lan-taldea eta bere lana ezagutzera eman zuten. Bertan gai honekin lotuak dauden eskualdeko zenbait denda eta komertzio euren produktuak erakutsi eta saldu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Basurde ehiztarien denboraldi emankorra

Herriko basurde ehiztariak bortz basurde bota zituzten ilbeltzaren 10ean Aritxulegi eta Endara auzo inguruan. Honela, gaugerero 60 bota dituzte hilaren 28an bukatuko den denboraldi honetan.

Txalaparta kontzertu didaktikoa

Hutsun Txalaparta taldeak kontzertu didaktikoa eskainiko du urtarrilaren 24an, larunbat arratsaldeko 6etan Harriondoa Kultur Etxean. Helduen sarrera 6 euro gostako da eta 4-13 urte arteko haurren 4 euro. Aitzinetik udal kiroldegian eta Xagu, Telletxea eta Legarra liburudendetan eros daitzke eta egun berean Harriondoan ere salgai izanen dira 17:00etatik aitzinera.

Bertsolari txapelketaren simulakroa Harriondoan

Nafarroako Bertsolari txapelketaren simulakroa eginen da urtarrilaren 25ean, igandean 17:30ean Harriondoa Kultur Etxean. Josu Sanjurjo, Ioar Tainta, Iban Garro eta Eneko Fernandez, Patxi Castillo eta Julen Zelaieta ariko dira kantari. Alpatu behar da Bortzirietako taldekakoan Ioar Tainta, Jon Barberena eta Manu Goigana sueratu zirela txapelkun.

Sokatira taldea Euskal Herriko txapelketan

Aspaldiko partez, Beti Gazteko mutilen sokatira txapelketa Euskal Herriko txapelketan ariko da. 600 eta 560 kiloko kategorietan lehiatuko dira eta otsailaren 14an izanen dute lehen saioa.

Auzolanak Gaztetxean

Gogotsu hasiak dira gazteak Buruztanka Gaztetxearen lokala garbitzeko lanetan. Larunbatetan gelditzen dira.



LEHIAKETA

75. urteurrena ospatzeko logotipoa aukeratu du Beti Gaztek

A.A.A.

Beti Gazte elkarteak aurten 75 urte beteko dituela eta, urtemuga hori ospatzeko garatuko diren ekitaldiak eta jarduerak identifikatzeko logotipoaren diseinua aukeratzeko lehiaketa deitu zuen. Denera, 14 egilek 26 diseinu aurkeztu zituzten eta ikusgai izan ziren Harriondoan. Eloi Lopez Perotxena herritarren diseinua izan zen bozkatuena. Zuzendaritza batzordeak egindako bozketan ere, emaitza bera ateratu zen. Egile beraren bertz diseinu batek bigarren saria lortu zuen. Aipatzekoa da, Eloi Lopezek lehen sariaren 200 euroei eta bigarren sariaren 50 euroei uko egin eta Beti Gazteri eman dizkiola. Hirugarren saria (50 euro), Badajozko Alburquerque herritik Francisco Javier Sanchez Barrosok aurkeztutako *Historia* iva lanarentzat izan zen.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Barria erosi taldea

Leizola
Barrutia
Mertara
- Jantz Egileak
- Puzen Maak
Kallogorria
Behoko plaza 10 30770 Leizola
T. 948 627 514

IRU BIDE
Estrategia - Akademiak
Bilbo 75000, 5^a Leizola
Tel. 948 637 127

ETXALAR

GIZARTEA → ABENDUAN

Beharrean daudenezat janari bilketa egin dute

Parrokiaren ekimen honetan herritarrek gogoz lagundu eta 1.300 kilo bildu dute

Iruñe eta Itsaso

Abenduan Etxalarko parrokiak antolatuta, beharren daudenei laguntzeko, janari bilketa egin zen. Herritarrek gogoz lagundu zuten, denetara 1.300 kilo pasatxo bildu baitziren eta Iruñeko Paris 365 jantoki sozialera eramán ziren.



ARGAZKIA: ANTON IRRIBARREN

Bildutako janaria Iruñeko Paris 365 elkartera bideratu dute.

Magra txapelketa

Urtarrilaren 11n hasi zen Larraburuan ma-

gra besoa txapelketa. Musean 6 bikote arituko dira eta partxisean

berriz 8. Otsailaren 28an bukatuko da txapelketa afariarekin.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Txokolatada Larraburuan

Urtero bezala, urtarrilaren 6ean, errege egunarekin, Larraburua Jubilatuen elkarteak txokolatada eskaini zien hurbildutako haurrei eta honekin eman zitzaion akabera eguberrietako ekitaldiei.



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

Ela-Ela

Urteko azken egunean, ohi bezala, haurrak etxex-etxe ibili ziren urtatzak biltzen.

carrho
gostotegia ostetegia

Plaza erdian 25 baxo
48700 Barakaldo (Bizkaia)

1948 630899
www.sarobe.net

ZUBIONDO
Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika
HERA NAFARROA

KAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

LIKIDAZIOA
KUKUXUMUXU kamandatar

Hortzak 10 €
Hortzak 3 €

José I. Gonzalez Enguita
berritzaile

barriak eta liburuak

tel. 666 235 466

ARANTZA

GIZARTEA → JOAN DEN ASTEKO OPERAZIOAN ATXILOTUA

Haizea Ziluaga herritarra libre

Hainbat mobilizazio egin dira herrian

Nerea ALTZURI

Hainbatetan bezala, ilbeltzaren 12an, norbanakook ditugun eskubide eta askatasunen kontrako bertze ekintza bat izan zen. Herritarron giza eskubideak urratuak dira aspaldian eta bakerako eta konponbiderako nahia eta desioa milaka eta milaka herritarrok eskatzen badugu ere, bidean ditugun trabak etengabeak dira. Etsipenean erori gabe, azken egunotan izandako elkarretaratze jendetsuek adierazi dute horrelako erasoak bake, askatasun eta demokrazia egoera bat sortzeko egiten ari diren ahalegin eta egoera politiko berriaren kontra zuzenki eragiten dutela.

Dakizuen bezala, ilbeltzaren 12an izandako abokatuen kontrako polizia operazioan, hamasei lagun atxilotu zituzten. Batzuk Madrilen, bertzeak Euskal Herrian. Tarte-

an zen Haizea Ziluaga herritarra eta lanbidez abokatua dena. Madrilen atxilotu zuten, harat joana baitzen 04/08 auziaren epaiketan defentsa lanetan aritzeko zelako. Epailearen aitzinean deklaratu ondotik, karguekin aske gelditu zen ilbeltzaren 13an.

Inguruetan bezala, atxilotetek samina eta kezka eragin zuten herrian eta elkarretaratze eta mobilizazioak egin ziren joan den astean. Ilbeltzaren 14ko goizalean ailegatu zen Haizea herrira eta arratsaldean hainbat herritarrek ez zuten Haizea besarkatzeko aukera galdu nahi izan.

UDALAREN MOZIOA

Atxiloteten biharamunean, atxilotetak salatze-ko mozioa onartu zuen Udalak ez ohiko batzarrean. Udalak bere babes eta elkartasuna helarazi zien Haizearen etxeko, familiako eta lagunei eta atxiloteta salatze-ko mobilizazioei atxikimendua erakutsi eta horietan parte hartzeko deia luzatu zien herritarrei. Mozioa osorik: www.arantza.eu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ilbeltzaren 14an ailegatu zen Haizea herrira.



ARGAZKIA: KONTSEILUA

Euskal Tonbolako autoa Arantzan

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bederatzigarren urtea du Euskal Tonbola ekimenarekin. Euskararen normalizazioan, pauso berri eta sendoak ematen segitzeko erabiltzen du Kontseiluak. Hainbat ostatu eta saltokitan eskura daitezke txarteltxoak eta sari aunitz banatzen dira. Martxepenbordako Nekane Maiari Euskal Tonbolako autoa egokitu zaio. Zorionak!

La Caixaren diru-laguntzak

La Caixak, Gizarte Ekintzaren bitartez, ondoko diru-laguntzak utzi ditu Arantzan: 500 euro Pe-

lle-Ttikirentzat, 500 euro Guraso Elkartearentzat, 2.000 euro Zahar Txokorentzat eta 1.500 euro Euskara Mankomunitatearentzat.

Inauteriak!

Otsailaren 5etik 7ra izanen dira inauteriak eta egitaraua 28. eta 29. orrialdeetan duzue.

URBEN ARKITEKTOAK

ETXEGINTZAN AHOLKULARITZA



ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK
ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATZEA
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK (ITE)

TELF. 688 88 77 77 estudio@urbanarquitectos.com

URBEN EASO 77 1.1 ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7°. www.urbanarquitectos.com

IGANTZI

BORTZIRIAK



UTZITAKO ARGAZKIA

Hitzarmena sinatu dute IrriSarri Land eta Adacen elkarteak

Garun-kalte hartuaren Nafarroako Elkarteak (Adacen) eta IrriSarri Land abentura parkeak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Horri esker, elkarteko erabiltzaileek parkeko lehentasunezko sarbidea izanen dute eta hainbat *merchandising* objektu eginen dituzte bertako dendan salgai paratzeko. Joxe Elgorriaga IrriSarri Land parkeko gerenteak eta Francisco Fernández Adaceneko zuzendariak sinatu zuten hitzarmena. Adaceneko erabiltzaile eta profesionalak IrriSarri Land parkea bisitatuko dute udaberrian, eta pertsona elbarrientzat egozitako jarduerak probatu ahal izanen dituzte. Elkarteko bazkideek, parkeko jardueraz gozatu ahal izanen dute prezio berezian.

GIZARTEA → URTARRILAREN 24AN

Urteko ohiko batzarra egingen du Biltokik

Juntaren zati bat ere berrituko du

TTIPI-TTAPA

Biltoki elkarteak urteko batzarra egingen du

urtarrilaren 24an. 20:30ean hasiko da ohiko bilera eta gai-ordenean, altak eta bajak, urteko ekintzak eta kontuak, garbitasunerako deialdia eta bertze zenbait gai landuko dituzte.

Ohikoaren ondotik bilera berezia ere izanen dute, juntaren zati bat berritzeko. Lehendakariordea, idazkaria eta diruzain bat hautatu behar dituzte, baita hiru bokal ere.

HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEAK

Hondakinen inguruko zalantzak argitzeko aplikazioa sortu du

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak sakeleko telefonotan, tabletetan eta ordenagailuetan erabilgarri den aplikazio berria sortu du jendeak dituen zalantzak agudo argitzeko asmoarekin. Bertan informazio aurki daiteke, bortz ataletan banatua.

- **Zer non hiztegia:** Zerrenda luze batean etxean izaten ahal ditugun hondakinak bilatzeko aukera ematen digu eta nora bota edo eraman behar diren erran.

- **Hondakin motak:** Etxeetan gehien sortzen diren Hondakinen inguruko informazioa, edukiontzien kokapenak...

- **Ordutegiak:** Mankomunitateak dituen zerbitzuak eta bilketa bakoitzaren maiztasuna eta bilketa egunak.

- **Ohiko galderak:** Jendeak izaten dituen ohiko zalantza eta galderrei erantzuna ematen zaie modu laburrean.

- **Ezarpenak:** Zuk nahi duzun hizkuntza eta herria aukeratzeko ahal ditzuzu.

Edozein aplikazio beze-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aplikazioa doakoa da eta 5 ataletan banatua dago.

la deskargatzen ahal da, Play Store-tik zuzenean. Aplikazio bilatzailean "Bortziriak" hitza sartuta agertzen dena da, "Bortziriak Zer Non" izenarekin. Ordenagailu, tablet edo mugikorrean arazorik gabe deskargatu ahal izanen duzu. Euskeraz eta gaztelerez dago eta Mankomunitateak martxan paratzen dituen zerbitzu berriak gehitzen joanen dira. Aplikazioa irekitzen den aldiro sartu den informazio berria zuzenean eguneratuko da. Mankomunitatetik gogoratzen dutenez, «doakoa da, beraz deskargatu aplikazioa eta hasi birziklatzen zalantzarik gabe!».

zalain
LATEZKA, RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

BORTZIRI
UNISION ANAIK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

LA BURUNDESA
ZERBITZU BERRIA

Linea guztiak Bidasoko Ospitaletik pasatu edo ateratzen dira

LESAKA-BERA-IRUN						
Astelehena-Ostirala (Chaptalia etxea)	06:50	09:00	11:00	13:00	14:25	19:15
Lanunbatak		09:00		13:00	17:45	
Igandek-Jai Egunak						19:15

IRUN-BERA-LESAKA						
Astelehena-Ostirala (Iruñe Ospitalea)	07:55	10:00	12:00	14:00	15:10	18:30
Lanunbatak	07:55			14:00		18:00
Igandek-Jai Egunak		09:00				

www.laburundesa.com | 948 221 766 | 948 303 505

GIZARTEA

GIZARTEA → HIRUORRIKOA BANATU DUTE ETXEZ ETXE ETA AURKEZPENAK ERE EGIN DITUZTE

Tuneletako segurtasunari buruzko informazioa hedatu dute Udalek

N-121A errepidean

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoaldeko hainbat udalek behin eta berriz bere kezka agertu dute N-121A errepidearen egoerarekin. Udal ordezkariak hainbat bilera egin dituzte gai honen inguruan dagoen egoera modu batean edo bertzean hobetzeko eta herritarren segurtasuna bermatzeko. Orain dela hiru urte hasi ziren errepide honetan dauden tunelen inguruan Nafarroako Gobernua-ekin kanpaina informatibo bateratu bat egiteko prestatzen. Hainbat atzerapen eta oztopo gainditu ondoren kanpaina hau abiatuko dutela jakinarazi zuten urtarilaren 14an Malerreka-ko Mankomunitatearen egoitzan eskainitako prentsaurrean.

Bai suhiltzaileekin baita Nafarroako Gobernuko larrialdietako arduradunekin bildu ondoren tunelen inguruko



informazio eskasa zegoela konturatu ziren udal ordezkariak eta informazio falta honek herritarren segurtasuna arriskuan jar zezakela. Modu honetan, kanpaina hau abiaratzea erabaki dute herritarrek informazio gehiago eskuratu eta zalantzak argitu ahal izateko.

Horretarako Baztan-Bidasoaldeko herrietan Nafarroako Gobernua-ren laguntzarekin egindako eskuorri informatiboa banatu dute. Aldi berean eskualde mailan bilera informatiboa egin dituzte egunotan.

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Udal ordezkariak kanpainaren berri ematen eta etxez etxe banatu den informazio eskuorriaren zati bat.

HONDAKINAK

Aurten ere egutegia eman dute argitara Bidasoaldean

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Bortziriak eta Malerreka-ko Mankomunitate-ek zonaldeko etxe guztietara bidali den egutegia prestatu dute aurten ere. Bertan Hondakin bereziak biltzeko dituzten garbigune mugikorrek ibilaldiak jakitera ematen dituzte eta baita Hondakinen inguruko bertzelako informazioa ere:

- Traste haundien bilketa zerbitzuko telefonoa.
- Konpost kanpaine-tako datuak.
- Auzo-konpostaguneen kokapenak.
- Arropa edukiontzien kokapenak
- Bilketa datuak.
- Zein edukiontzira botu behar den hondakin mota bakoitza.
- Bertze sentsibilizazio kanpainen inguruko informazioa.
- Telefonoak, etab.

LEHENBIZIKO

ZOKZETAN 7709 ZENBAKIA SARIDUN

Gainera, ale bakoitzak zerbaki bat du urtean zehar hainbertze zozketa egingen baitira. Aurten hiru hilabetero egingen dute zozketa eta guztira eskualdeko dendetan gastatzeko 300 euroko 4 erosketa txartela banatuko dituzte. Hau da lehenbiziko hiru hilabeteko zerbaki sariduna: 7709. Sari-dunak Bortzirietako Mankomunitatera deitu beharko du martxoaren 31 baino lehen (948 63 52 54).

GIZARTEA → ABENDUAREN 27AN

Binakako ajoarriero lehiaketa egin dute lehen aldiz

Sunbitek antolatua, zazpi bikote bildu zituen

Maider PETRIRENA

Sunbite elkarteak 1. Binakako ajoarriero txapelketa antolatu zuen abenduaren 27an. Honekin batera goiz partean Mendaurrea joa-

teko aukera zegoen baita haurrek aurpegia pintatu eta puzgarrietan ibiltzeko ere. Ajoarriero txapelketan 7 bikote aurkeztu ziren eta irabazleak Jexux Mari eta Mari Paz izan ziren, bigarrenak Nagore eta Amaia eta hirugarrenak Bidane eta Irati. Epaimahaian Angel Mariezkurrena, Loli Ganteara eta Arantxa Ibarra



ARGAZKIAK: AMAIA ARRETXEA, ESTHER EZKURRA ETA MAIDER PETRIRENA

Urtea eguberrietako aferekin hasi genuen. Urteari hasiera emateko urtaskak biltzera atera ziren haurrak auzoka banatuz. Herrian bi auzoetan banatzen dira eta baserrietan ere bertze bitan.

egon ziren. Horrez gain tokiko produktuez betetzareder batzozketatu zen eta Urristibile-

ko Juana Mariri egokitu zitzaion. Zorionak!

Prestatutako ajoarrieroak dastatzeko au-

kera izan zuten Ulibeltzak elkartean eta ondotik arratsalde partean, trikipoteoa izan zen.



ARGAZKIAK: BIDADAL IBARRA

Gogotsu hasi du urtea Ulibeltzak mendi taldeak

Ulibeltzak Mendi taldeak gogoekin hasi du urtea, urteroko Mendaurreako irteera urtarrilaren 4an eginez. Urtarrilaren 11n Auza-ra joan ziren. Inauteriak tartean direla deskantsu tiki bat eginen dute eta hurrengo irteera otsailaren 8an eginen dute.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Erregeak eta jaiotza elizaren barnean

Olentzeroren antzera, Erregeek ere ibilaldia egin zuten herrian. Aipatzekoa da gaurgero 20. urtea dutela Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek herria bisitatzen dutela. Aurten, berrikuntza moduan, erregeei eliz atarian jarri beharrean beraien eserlekuak elizaren barnean jarri zitzairen. Jaiotza biziduna ere barnean egin zen. Meza entzun zuten errege eta bertaratutako guztiek eta ondotik haurrek erregeei eskutitzak eta muxuak emateko aukera izan zuten. Jendetza hurbildu zen elizara.

DONEZTEBE

GIZARTEA → EGOBERRIAK

Elkartasunez blai hasi dute urtea herriko hainbat taldek



ARGAZKIA: ERREKA K. E.

AEA (gaztelaraz ELA) eritasunaren ikerketa bulkatzeko eta elkartasuna adierazteko busti ziren Erreka elkarteak atal ezberdinetako kideak urtarriaren 3an.

AEA (Alboko Esklerosi Amiotrofikoa) eta Sanfilippo gaitzak ikertzeko diru bilketa eta ekitaldiak egin dituzte

Marga ERDOZAIN

Sanfilippo eta AEA gaitzen ikerketa bultzatzeko ekimenekin abiatu dute urtea Errekak, guraso elkarteek, merkatariek eta ume eta gaztetxoek.

Erreka elkarteak, adibidez, AEA eritasuna ikertzearen alde busti zen Bear-Zana pilota plazan. Kasinoko baloietatik botatuko baldekadekin busti ziren azpian zeuden korrikalari, txirrindulari, judoka, mendizale eta abarrak. Elkartasun hori tantaz tanta diru ere bihurtu zen eta ekarpen polita egin zaio gaitza behar bezala iker dadin. Errekak Baztango Bertan elkartetik hartutako lekukoak, Doneztebeko udala, Mendi abesbatza eta Laxoa elkarteak pasatu die orain.

STOP SANFILIPPO FUNDAZIOARI EKARPEN EDERRA

Mendaur eta Erreka guraso elkarteek Sanfilippo gaitzaren aldeko iker-

keta ahalbidetzeko zine emanaldi berezia antolatu zuten eta ekarpen honi bertze bi gehitu zaizkio. Merkatariek ere eguberrietako zozketan eritasun hau izan zuten gogoan eta txistorradan bildutako dirua ekimen honen alde bideratu zuten. Eta ez hori bakarrik, urtarriaren 1ean ume eta gaztetxoek urtatsekin bildutakoa ere elkartasun keinu bihurtu zen. Aipatzekoa da ekimen guzti

hauekin 1.200 euroko ekarpen polita egin dela. Zergatik ote elkartasuna partekatzean biderkatu eta areagotu egiten dela? Ez dadila

eten elkartasun soka eta 2015erako erronka pertsonala edo talde erronka bilaka dadila.



Ba al zenekien

Baltasar Erregeak Ekialde Urrunetik Doneztebeko umei eskutitza idatzi diela ongi dagoe la erranez. Doneztebeko kabalgatan izandako istripuaren ondorioz, Baltasarrek erabaki du zaldiz ibiltzeko ikastarotxo bat egitea, heldu den urtean Doneztebeko karrketan barna lasai ibiltzeko. Beraz, beldurrik gabe segitzen ahal dugu errege honi opariak eskatzen.

POLITIKA → UDAL HAUTESKUNDEAK

Maiatzeko hauteskundeak prestatzen hasi da EH Bildu

Otsail hasieran batzar idekia eginen dute proiektuaren aurkezpena egiteko

M. ERDOZAIN

Maiatzeko udal hauteskundeak prestatzen hasi da Doneztebeko EH Bildu. Lehendabiziko aldia izanen da EA, Sortu, Aralar eta Alternatiba udal Donezteben koalizioan aurkeztuko direna. Beraz, oraingoan indar metaketa honek kandidaturari itxura berria emanen dio.

Urtarrilean talde eragilea eta hainbat 'norbanakorekin' egoteko asmoa du Doneztebeko EH Bilduk, dauden beharrak eta erronkak ezagutzeko. Otsail hasieran batzar idekia egin nahi dute abiatu duten proiektua herritarrei aurkezteko eta parte hartzera gon-

bidatzeko. Batzar horretan bildutako proposamenak eta ekarpenak kontuan hartuta, eta talde eragiletik bildutakoa ere jaso ondotik, hauteskunde-programa osatuko dute. Otsailean ere zerrendan joanen den jendea zehazteko asmoa dute, behin betiko programa erredaktatu eta ixteko. Gero, bigarren batzar idekia eginen dute programa onartu eta zerrendari buruz aritzeko.

Aurreikusitako kronogramaren arabera, martxoan, hauteskundezerrenda itxi, hirugarren batzar idekia egin (zerrenda onartzeko) eta bai programa zein zerrendak, biak argitaratu emanen dituzte. Lan horiek guztiak bideratzeko, lan banaketa eta azpibatzaileak prestatu nahi dituzte.

Doneztebar guztiak prozesu honetan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte, adin, errealitate eta esparru ezberdinetako jendea erakarri asmoz.

FLASH

Doneztebeko Gure Esku Dago

Doneztebeko Gure Esku Dago batzordeak urtarriaren 23an, ortziralara, giza katearen eguneko argazkiekin egindako bideoa aurkeztu eta azalduko du Gure Esku Dago ekimenak zer erronka ezarri dituen 2015erako.

Haur Etxea zabaltzeko proiektua

Haurrei eta talde txikiari (gehienez lau haur) egokitutako hezkuntza proiektu baten bidez bideratuko da Doneztebeko Haur Etxea. Urtarrilaren 23an bilera informatiboa egingen da Uhartegaina etxean. Harremanetarako 620145500 edo aitzie-rasun@hotmail.com

Txibi txapeldun...

Xanti Uterga, Txibik irabazi du erremonteko Mastertxapelketa. Urtarrilaren 10ean Galarreren jokatuak finaletan 30-24 irabazi zion Endika Urrutia saldiastarrari.

eta Niko Mundialetik kanpo

Aurreselektzioan bai, baina gaugergero Quatarren Munduko txapelketa jokatzeko ari den Espainiako esku-balo selektzioan ez zen sartu Niko Mindegia herritarra.

ELGORRIAGA

GIZARTEA → URTARRILAREN 16AN ETA 17AN

Eguberriak akitu orduko inauteriak ere pasatuak

Larunbat honetan eginen dituzte kontuak

Mattin LARRALDE

Eguberrietako bestak pasa berriak izanda ere, Elgorriagako inauteriak ere ospatu berri dituzte. Urtarrilaren 16an, ortziralean, herriari buelta eman zioten trikitalariekin eta ondoren afaria izan zuten Herriko Ostatuan. Gero, noski, ortziral arratseko bestak

segitu zuen larunbat goizeko ordu tikiak arte.

Ilbeltzaren 17an, larunbat goizeko gosariaren ondotik, puxkak bildu zituzten herrian barrena eta gero bazkaldu egin zuten gazteek Hilarionen. Arratsaldean mozorro desfilea egin zen eta hori akituta zozketa. Gero, urteroko ohiturari eutsiz, gazteek goizeko eskelatan lortzen duten arrautzak, txistorra eta urdai-azpikoa eskaini zioten herritarrei, berendua

egiteko. Arratsean afaria izan zen Hilarionen eta larunbateko ospakizunak akitzeko, akordeoiaren musika herriko ostatuan.

KONTUEN EGUNA HILAREN 24AN

Heldu den larunbatean, urtarrilaren 24an izanen da kontuak egiteko eguna, inauteei akabaila emateko. Arratsaldean mus txapelketa izanen da urtero bezala eta ondotik, kontuak egiteko afaria.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Mozorroak ere ikusi dira inauterietan.

URROZ

GIZARTEA → EGUERRIETAN

Berriz ere zabaldu dute Herriko Ostatua

Bi eskaintza aurkeztu zituzten eta Xabi Saldias herritarrak hartu du ardura

Joseba URROTZ

Eguberriarako zabalik zen berriz ere Herriko Ostatua. Aste batzuk lehenago egin zuen udalak aurkeztu ziren bi proposamenen arteko aukeraketa, eta herritar ba-

tentzat izan zen esleipena, Xabi Saldiasentzat. Bertze eskaintza herritik kanpokoak zen.

Ezkilak ixilik

la aste pare batez edo, herriko ezkilak ixilik egon dira, gauza bitxi samarra, ez baitago argi zer gertatu zen, bere gisa matxuratu edo aberiatu zenaren itxura haundirik ez omen zuelako mekanismoak. Hala ere, berriz martxan da, batzuk falta hautesten zuten...



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Olentzeroren agerraldi jendetsua

Honezkero urruti xamar dago eguberri bezpera, Olentzerok bere agerraldia egin zuenekoak, baina merezi du aipamena eta argazkia, ekitaldi jendetsua izan baitzen.

Baserrietarako bidean konponketak

Leurtzako urtegiatarako ere bidea den ba-

serrietako bidean zulo koxkorak agertuak ziren hainbat tokitan aspaldixkoan, ospelentan batez ere. Okerrenak bederen konpondu

dituzte, ea gerora ere gure gobernuak laguntzarik ematen duen, errepidearentzat ere urteak ez baitira debalde pasatzen.

ITUREN

GIZARTEA → EKAINAREN 20AN OSPATUKO DA

Aurtengo Gure esku dago Eguna prestatzeko bileretan hasiak dira



Aurtitzen ilbeltzaren 18an egin zuten eta Iturenen otsailaren 8an izanen da

Arkaitz MINDEGIA

Gero eta gertuago dago ekainaren 20a, Gure esku dago eguna. Malerrekako gure esku dago burubelarri dabil lanean. Aurten herrika banatu da lantaldea eta talde berean daude Ituren, Aurtitz eta Zubieta, dagoeneko lanean eta bilerak eginez. Aurkezpenak ere herrika egiten hasiak dira. Hain zuzen, Aurtitzeri dagokionez, elkartean aurkezpena egin zuten urtarrilaren 18an arratsalde partean. Oso gustora ibili ziren aurkezpenean, berotasunean sartu ziren txokolateakin eta aurkeztu zuten egitasmoarekin ere.

Ituren dagokionez, datorren otsailaren 8an egingen dute eguerdi partean, egun horretan pla-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Nafarroako bertso eskolen negulekua Aurtitzen

Aurtizko Abarun aterpetxean Bertso negulekuak ospatu zituzten abenduaren 29 eta 30ean. Nafarroa guziko 70 haur elkartu ziren. Tartean, nola ez, sortu berri den Ittongo bertso eskolako haurrak. Bertso munduan gehiago sartu ziren, jolastuz eta ondo pasatuz bertsoak kantatuz eta aztertuz.

zan otsaileko Artisau eta lanbide azoka burutzen ariko dela probextuz.

Ehiztariak

Herriko ehiztarietangu giroari ez diote bature beldurrik, hortxe ibilki dira batean eta bestean etxera betirosaria ekarriz, hau da ba-

surdeak botaz. Urtea ongi bukatu zuten behinik behin, nahiko basurede bota baitzituzten.

Inauteriak

Atejoka ditugu inauteriak, gorputza, joareak, larruak, mozorroak... dena prestatuak daude, heldu diren egun

polit hauetan gure herriko xoko polit guzietan giro eta umore onak alaitzeko.

Lerro hauen bidez gonbidapena luzatzen dizuegu, gure inauteriaz gozatzera etortzeko, al-dizkari honetan bertan gehigarrian xehetasunak dituzue.

Pertsonaia

Egoitz GOROSTERRAZU

Maurixio ETB2ko El Conquistador saioan

Jadanik bere lehen egunak hasiak ditu ETB2ko *El conquistador del fin del mundo* saioiko 11. edizioak. Egoitz Gorosterrazu *Maurixio* herriko gaztea parte hartzen ari da, Patagoniako xoko polit eta dotore horietan momentu gogor eta ahaztezinak pasatzeko aukera dauka. Eneko eta Laiseka kapitainekin batera, mutikoen taldean dago eta suerte ona opa diogu. Seguruenik bere giro ona, xelebrekeriak eta nola ez bere bertsoekin ederki moldatuko dela bere taldekideekin eta aurre egingen diela frogetan beste taldeekoei. Igan-dero eta astelehenero segituko diogu pantaila tikiari begiradarik kendu gabe.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAJA IREKIA

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 423 130



Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRICO ERAKINA • DONOSTIA

Tel. 943 467 244 • 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@sordako.com

INAUTERIAK

2015



Ernatu eta gozatu!

Heldu da ganbarako trapu zaharrak astintzeko ordua. Mimos jositako mozorro dotoreak janztekoa. Badatoz aurpegia ezkutuan gorde eta zirika ibiltzeko egunak, baita joareak dantzaziz zirikatzaileak uxatzekoak ere. Baserrietara urteroko bisita egin edota hilabetetan landutako gurdiak karriketara ateratzekoa.

Txaranga erritmoan gorputza mugitu edota akordeoiari segika fandangoa dantzatzekoa. Besta, pesta edo festa nagusitzekoa. Eta aldi joana ez denez itzultzen... Mozorro, atsaure, tronpetista, joaldun, ume, gazte zein heldu neguko loalditik ernatu, bete karrikak eromen, zarata eta kolorez.

Gozatu **INAUTERIETAN!**



Ariztela
DEKORAZIO
TAILERRA
ONGI PASA INAUTERIAK!

- Eterako arropa, mainderek, koltzak, nordikoak, mantak, safarako fundak...
- KORTINAK: ehunak, bozrak, mekanismook, kortinak egiteko pieza guttiak...
- INAUTERITAKO TELAK ETA ELISKAL JANTZIAK
- SUJETADOREAK ETA BAINUJANTZIAK: neurritra eskutuzko dafuga, zura forma eta neurritra: egokitzen direnak eta oso prezio onetan

T. 948 61 06 11 - ariztela2010@gmail.com
Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)

MUSUNZAR
OSTATU-JANTZIAK

ONGI PASA IHOTEXA

facebook
twitter

Elbarren, 14
948 51 06 07
31880 LEITZA

www.musunzar.com

**PERITZA
TABERNA**

ongi pasa hotexak
eta pintxo liburrak

LEITZA • 948 610 848



DENAUTO SAGASPER
Tailerra
Ongi pasa ihoteak!!!
AUTO KONPONKETA
Eluseder Ind. • ARESO • T 948 510 610 • F 948 510 917

ONGI PASA IHOTEAK
Lizarraga
harategia
"GUREA, KALITATEA"
Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

AiNART
LIZARRAGA
ONGI PASA IHOTEAK
Elbarren, 67 behea
LEITZA
948 510 197

Ongi pasa ihoteak!
FISIOETXEA
Ane Eggozal Lloza
Fisioterapeuta
CPS-18240/INA - 926 lehenengo azaldua
Bikertze arrikataz - Kiroi eta Zirkulazio Masajoa - Osteopatia
Erditze aurreratu/ondorengo tratamendua
Etaz eta/eta laguntza - Aseguruak
Mutuak - Partidulariak
Huarte Gutzia, 8 B.C. - LEITZA - Tel: 948 510 730

Olaia Bazar
ONGI PASA IHOTEAK!
LEITZA • Landabekoa, 3 • 948 510 437

LORRAK
PAPERTEGIA
JOSTAILUAK
HERRIARRAZ
ETAKO TREBEAK
JANTZIAK
SARRAIZTEK
PRODUKTUAK

ongi pasa ihoteak!
JAI-ALAI
Hostala
Tlhoa: 948 510 735 • Faxa: 948 510 736
www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

EZKAIN eraikuntzak S.L.
ongi pasa inauteak !!
Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

LEITZAKO IHOTEAK | Ilbeltzaren 24, 25, 26 eta 27a



EGITARRAUA

ILBELTZAK 24, larunbata

14:00etan Aurrera elkartean **bazkaria** izanen da eskean ibiliko direnentzat. **16:00 aldera** eskean hasiko dira herriko etxeetan. **20:00etatik aitzinera**, **Atekabeltzen pesta** izanen da eta goizeko **01:00etan zenzenketa** egingen da plazatik Atekabeltzera eta ondoren **karaokea**.

ILBELTZAK 25, igandea

12:00 mozerro eta gurdiak kalejiran aterako dira Incansables txarangarekin. Etxeko txikienek **txu-txu trenean** ibiltzeko aukera izanen dute eguerdi eta arratsaldean. **14:30 atsauretuak bazkaria** izanen dute eskolako jangelan eta **19:00-23:00** Joxe Mendizabal **orkesta gizonaren emanaldia** izango da.

ILBELTZAK 26, astelehena

09:00etan gazteak elkartuko dira Aurrera parean Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka auzoetara **eskean** joateko. Base-rietan dabiltzan bitartean, herrian, **17:00 umeen kalejira** izanen da, musikaz alai-turik. **Ondoren** txokolatada eta goxokiak banatuko dizkiete. **Iluntzean eta gaue-**



ARGAZKIAK: PABLO FEO

an Orkesta gizonaren emanaldia izanen da plazan.

ILBELTZAK 27, asteartea

09:30ean dute hitzordua mozerroek Erasote auzora abiatzeko **eskean**. **Goizean eta arratsaldean** puzgarriak eta jokoak izanen dira haurrentzat frontoian. **14:00** Aurrerako bazkideen bazkaria izango da eta atsaureak berriz Atekabeltzen bazkalduko dute. **16:00etatik 18:00etara** jokoak antolatu dituzte frontoian. **18:30 Atsaureen kalejira** musikaz lagunduta. **Ondoren Gabezin** taldearen kontzertua.

KIDE
aholkularitza

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autonomoak
- Enpresen sorrerak
- Autoen transferentzia
- Errenta aitortpenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

ongi pasa ihoteak

LEITZA: Landa Ind. Sulezi 3 • T.948 510 990 F. 948 510 429
DONOSTIA: Urbietta, 60 - 1ºEz • T. 943 420 348 F. 943 441 838
www.kide.es



Garazi ZABALETA | Leitzako gaztea

«Aurpegia ezkutatuta jendea zirikatzea da asmoa»

Hirugarren urtez animalia larru eta adarren azpian ezkutatuta astearteko atsaure kalejiran ibiliko da ingurukoak xixatuz.

Ihotezalea da oso Garazi «herrian bizi ditudan urteko egunik politenetakoak dira nerretzat. Bai parranda aldetik eta baita herrian sortzen den giroagatik ere» aipatu digu. Atsauretzalea ere asko gustatzen zaio izan ere «paper batean sartzen zara eta katxondeorako bidea ematen dizu, giro berezi bat sortzen da». Lau eguneko pesta burutan, ezin bakarra aukeratu «egun guztiak oso desberdinak direlako bata bestetik. Larunbat gaueko parranda asko gustatzen zait baina berexia da baserrietako eskea ere». Astearteko kalejiran berriz, azken hiru urteetan hartu du parte «zerbait desberdina, berria, kuriosoagoa da, garai bateko inauterien kutsu gehiago dute».

Ihoteetako egunik jendetsuenean, larunbatean, gaztetxearen bueltan egin ohi du Garazik pesta «gai bat aukeratu eta gaztetxea apaindu eta bakoitzak gure erara jantzia osatzen dugu. Gero kalejira egiten dugu eta karaokea ere izaten da». Igandean indarrak hartu eta astelehenean baserrietarako eskera joaten da, «mendian oinez joan eta baserrietan geldialdiak eginez joaten gara. Nahikoa jan eta edana izaten da, txarangakoak eta txistulariak ere izaten dira musika pixkat jartzeko. Iluntze, arratsalde partean herrira bueltatzean giroan oso sartuta egoten gara» aipatu digu barrezka. Eguraldia ere ez omen da aitzakia izaten etxean geratzeko «askotan tokatzen da hotza, elurra... plastikoarekin elur gainean ere ibili izan gara. Hotzari aurre egiteko modua erraz bilatzen dugu baserrietan».

Asteartean, animalia larruak jantzita, adarrak buruan eta aurpegia estalita atsaureen kalejiran ere ateratzen dela kontatu digu «ikusgarria da oso kalejira hau, iluntzean izaten da eta pertsonaia desberdinek hartzen dute parte. Leitzako Kultur taldekoek lan dexente egin dute jantziak lortzeko oso ongi landutakoak dira». Eta ilbeltzaren 28a iristean, ez pentsa datorren urtekoen esperoan etxean geratuko denik, «inguruko inauterietara ere bisita egin beharra izaten da eta».



LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Ihote zoriontsuak deno!!!

LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20
Tel: 948 510 598 - 669 368 991
LEITZA

ongi pasa ihoteak!

MAIMUR

Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 148

· Prentsa - opariak - testu liburuak
· Plastifikatzeak - enkuadematzak
· Inprenta lanak - fotokopiak

SAGASTI JATETXEA

ongi pasa ihoteak!

Elbarren, 98 - LEITZA - ☎ 948 610 637

Melo Pinturak

T. 609 873 178
LEITZA

www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.com

ongi pasa ihoteak!

OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 - LEITZA - 629 418 431 - 606 307 810

Aliprox

Unibertsitateko, Baserriko, Prebentzio, Prebentzio

Tel: 948 510 007 - 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa ihoteak!

OGI BERRI
KAFETEGI OKINDEGIA

948 610 974 | LEITZA

ongi pasa ihoteak!

TXOKO
taberna

Pintxoak Otartekoak
ongi pasa ihoteak!

Elbarren, 22 - LEITZA - Tel: 948 510 227



Lizun
GAZTANDEGIA
ONGI PASA INAUTERIAKI!

Sunbilla - Tel: 948 450 862

larreta *Caja para sentir!!*

IGELTSU PROIEKTATUA - PLADUR LANAK

SUNBILLA - BERRIA

627.225.514 | 637.921.299
larretaigeltsua@gmail.com

ITTURBURU
OSTATUA

ongi pasa inauterian!



Kazania, 23 - SUNBILLA - T. 948 451 703

ALTZURI

MENDE LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

SU EGUIRA ETA
PIKETEAK SALGAI

Leku-Edon, Bustitz - 31791 SUNBILLA
altzuri@yahoon.es - Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 - 699 461 394

IRURI
MOTOR

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA INAUTERIAKI!

T. 948 450 399 - 620 950 687
Iruri-Iruri errep. zaharra | SUNBILLA

INAUTERIETAN
zure gosari eta bazkariak
ARIZTIGAIN
KANPINEAN!!



SUNBILLA • 948 450 540
info@campingariztigailain.com
www.campingariztigailain.com

SUNBILLA

SUNBILLAKO INAUTERIAK | Ilibeltzaren 23, 24 eta 25a



EGITARAUA

ILBELTZAK 23, ortzirala
09:00etan gazteek **gosaria** Ariztigailain kanpinea. **Ondotik** 2 taldetan banatu eta baserrietara joanen dira, Modesto eta Beñat akordeolariarekin. **Bazkaria** Ixtola eta Exkernekobordan. **17:00/20:30ean** herriko haurrentzako **txokolate beroa** eta **disco jaia** frontoian, Guraso Elkarteak antolatuta. **21:30ean** eskean dabiltzanen afaria Itturburun. **Gauean Emakumeen afaria** Ulibeltzak Elkartearen eta afal ondotik **sorpre-sa** izanen da.



ILBELTZAK 24, larunbata
10:00etan Bustitz ostatuan gosalduek ondorengo gazteak **eskean** ibiliko dira Beñat akordeolariarekin. **Ondotik** bazkaria egingen dute Fondan. **17:00/21:00etan** umeentzako **berendua** eta disco jaia Ulibeltzak Elkartearen. **Gauean** gazteek **afaria** Elortxurin.



ILBELTZAK 25, igandea
11:00etan **karrozen desfilea** opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko ditu Ulibeltzak Elkarteak ikusleen artean. Desfilea bukatzerakoan **zozketa**: zerria eta bildotsa. **14:30ean** **bazkaria** Ulibeltzak Elkartearen. **Dantzaldia** Santxotenenaren eskutik.

ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA
Giro bikaina izanen da aurten ere Sunbillan.

JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES


Gremioen koordinazioa
COORDINACIÓN DE GREMIOS

T. 699 122 815

31791 - SUNBILLA (Nafarroa)



JAVI PETRIRENA



ELEKTRIZITATEA
ITURGINTZA
KLIMATIZAZIOA
LED INSTALAZIOAK
BERDUNTZA
BIOMASA EGURRA / PELLET
GREMIO KOORDINAZIOA
INSTALAZIOEN FINANTZAZIOA

T 678 35 48 47
petrere@ibea.com | javi_petrere@hotmail.com

Unai BERTIZ | Sunbillako gaztea

«Etxez-etxeko eskeak karroza desfileak ez duen bertze xarma bat du»

Hogei urte baditu karrozak egiten eta aurten hamahirugarren aldiz aterako da eskean



Unai Bertiz eskuinean, bere kuadrillarekin inauterietan.

Sunbildar gehienak bezala, Unai Bertiz ere irrikitan egonen da herriko inauteriak noiz ailegatuko. Bereziak baitira sunbildarrentzat inauteriak, eta Unairentzat ere bai. Aurten berak hartua du inauterien ardura, bertze pare bat lagunekin batera, eta beraien esku daude bildotsa, zerria eta zozketako boletoak eskatzea, ostatu eta dendariekin solastea, eta eskean ibilitakoan egunean egunekoa kontatzea. Baina ardura horrek ez

«Urtetik urtera gero eta beranduago hasten gara karroza egiten. Urriroan hastea tokatu izan zaigu baina azken bi urteotan urtarrilean hasten gara»

Unai BERTIZ | Sunbillako gaztea

inor ere ez: «jendeak hori kontuan hartzen du eta ez da inor sartzen saiatzen». Neskak taldean sartu ala ez galdetuta, «urtero airean gelditzen den galdera» dela dio, baina onartu digunez, «ez nuke aldaketa nire gain hartu nahi».

Igandeko karroza desfilean ere parte hartzen du, «20 urte daramatzat karrozak egiten». Hala ere, karroza egiteak lan gehiago emanatik, garbi du nahiago duela eskea: «bertze xarma bat du, eta karroza desfilea baino gehiago gustatzen zait». Urtetik urtera karroza egiten «gero eta beranduago» hasten direla ere adierazi digu: «urriroan karroza egiten hastea tokatu izan zaigu. Gerora abendura pasatu ginen, hasieran zubira eta gero Eguberrietara. Eta azken bi urteotan urtarrilean hasi izan gara». Baina azken momentuan bada ere, ezin erran halamoduzko karroza egiten dutenik, landua eta ikusgarria izaten baita Unairen kuadrillarena. «Urtetik urtera materiala biltzen joan gara eta materiala lehen baino eskurago dugu. Trukoak ere hartuz joan gara, nahiz eta denbora aldetik beti presaka ibili. Karroa ere gurea dugu, orain dela 16 urte egina, eta ez dugu eskatzen ibili beharrik». Aurtengo karrozaz ere galdetu diogu, baina ikusi nahi duenak igandean Sunbillara agertu beharko du, nahiago izan baitu sekretuan gorde eta ez deus aitzineratu. Kontatu diguna, hori bai, «dena ongi ateratzea» espero duela.

SUNBILLAKO TAXIA
8 plaza + txoferra
Ongi pasa inauterietan!
T. 633 466 486 Ainhoa

SASOI
eraikuntzak s.l.
Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 F. 948 456 188
info@sasoi.es
Ongi pasa inauterietan!

JANARI - JANUA
MARISOL ONGI PASA INAUTERAK
JANARIK | TIBAKAK | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T. 948450006

HARATEGIA CARNICERIA
M^a JESUS
Kamika Nagusia, 11 - SUNBILLA
T. 948 451 530 - M. 686 279 252
ONGI PASA INAUTERIAK
Etxean egindako txistorrak, berrikak, saltxituak eta hamburgesak.
Sunbillako kanitiloak eratorguz - Zonaldeko gaztak
ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA

SUNBILLAKO UDALAK
Inauteri zoriontsuak opa dituzte sunbildar eta bisitari guztini

ITUREN, AURTITZ,

mañi pasa buletetik

INDEGIA
ZURGINDEGIA
T. 948 451 906 - M. 689 531 012
31745 AURTITZ
carpiurindegia@yahoo.es
www.urindegia.com

ATEAK - TARNAK - LEHOAK - TELATUAK - PIRETAK
AIMAILUAK - ESKALERAK - SUKALDEAK
BERRIKUNTZA LEHO MIXTOAK (EGURRA-ALUMINIOA)

ALTxUNEA
ERRETEGIA
irag. irag. irag. irag. irag.

IREKITA
ostiral eguerditik igande eguerdira,
besta egunetan eta besta bezperatan

Kontsejo, 27 - ITUREN
T. 948 450 410

ttipi-ttapa ko
BERRIAK
FACEBOOK eta TWITTERREN
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

Ileapaindegia
EIDER
Estetika

Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445

MADERAS
SANTESTEBAN

Ongi pasu inauterietarako!

Mendi lanak
(Piztat, arrotzen dira)

Bigak
Montaje obran
Telaturako egiturak
(Bil. harria eta douglastinariak eta pinak)

Osagarriak
Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 68 77
info@maderasantesteban.com

ITUREN, AURTITZ ETA ZUBIETAKO INAUTERIAK



EGITARAUA

ILBELTZAK 26, astelehena

Goizean Zubietako joaldunek, mozorro eta karrozek lagunduta, **bisita** eginen diete aurtitzarrei. Herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik Iturenera joanen dira. **Lasagako Zarandia** parean, Iturengo joaldunekin elkartu eta herrian barna buelta emanen dute. Joaldunek aperitiboa hartzen duten bitartean, Iturengo plazan karroza bakoitzak eta **mozorroek** beren **ikuskizuna** eginen dute, joaldunek uxatu baino lehen.



ILBELTZAK 27, asteartea

Goizean Ituren eta Aurtizko joaldunek bisita bueltatuko diete zubietarrei.

ILBELTZAK 28, asteazkena

Zubietan hau izaten da inauterietako azken eguna. Eguerdian bazkaldu ondotik kontuak egiten dira. Ondotik joareak jarri eta Aurtiz eta iturendarrei azken bisita egiten zaie ilunabarrean. **Aurtizar eta iturendarrek** berriz asteazkenean bazkaria izanen dute eta arratsaldean etxez etxe ibiliko dira joare eta trikitilariekin. Ondotik afariak izanen dira elkarteetan.

ILBELTZAK 31 eta OTSAILAK 1, larunbata eta igandea

Kontuen eguna da Iturenen inauterietako azkena. Egun horretan ez da joaririk jotzen. Inauterietatik akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Iturenen, eta Aurtizen igandean. Iturenen bazkaria izanen dute Herriko Etxeko ganbaran. Bazkaldu aitzinetik herriko dantzarien saioa eta bertsolariak eta aizkora apustua izanen dira herriko plazan. Bazkaldu ondotik dantzaldia eta kontuen afaria. Aurtizen xaharren afaria eginen dute igandean.

BEROTZA

ITURGIN

Errotaldea Industrialdea - 31745 Aurtitz - Ituren (Na)
T. 948 450 063 - 620 886 443 - www.berotza.es - info@berotza.es



- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
- ITURGINTZA
- ELEKTRIZITATEA
- GAS INSTALAZIOAK

EGURREZKO ETA PELLETAZKO BEROKUNTZAN ADITUAK

Egurrezko kozinak, harro suak, estufak, kaleriak...

Aidatu berokuntza sistema PELLET edo EGURRAREN bidez berotzeko, lehenagoko instalazioak mantenduz

Biomasa instalazioetan %15eko diru laguntza

Finantziario aukera, 12 hilabete arte interesik gabe

Kalitatezko pellet banaketa

- Erantelean

- Zakuetan (15kg)

ESKAINZA BEREZIA:
Zakuak etxera eramaten ditugu **4€**tan

*Gutxienez 70 zakuak eskaintza



Pello SANTESTEBAN | Zubietako joalduna

«Nere izaeraren osagarri, hitzez esplikaezina den sentipena da»

Berrogeita hiruzpalau urte daramatza joareak astintzen

Umetatik izan du joareen oihartzuna hurbil Pellok. Zubietar aunitzek bezalaxe, zazpi urteren bueltan jarri zituen lehenengo aldiz joareak, «**errege bezpera batean. Etxez etxe joateko ohitura izaten zen orduan ere**» eta dagoeneko

berrogei urte baino gehiagoz eraman ditu gibelean. Ez da harritzekoa beraz, bere ahotik entzutea joaldun izatea bere «**pertsonaren zati bat**» dela. Joalduna izatea «oso zaila da esplikatzeko. Nere barruan dagoen zerbait da, nere izaeraren osagarri bat da, sentipen bat eta hitzez esplika ezina, nire pertsonaren zati bat delako» aipatu digu. Berexiki gogoan dituen inauteri batzuez galdetuta segituan etorri zaio burura «**joare baten izmia galdu**» zueneko, ez zen gelditu ez, zegoenarekin aitzinera «**urte hartan nire joare pareen hotsa joare bakar baten hotsean gelditu zen**».

Hau ez da izan urte haue-
tan gertatu zaien bitxikeria bakarra. Eguraldiak ezusteko bat baino gehi-
ago eman dizkiete «**duela bostpasei urte, astelehenarekin, Aurtizko ost-
tuan salda hartu eta Ituren aldera abiatzen hasi ginenean, izugarritzko**

kazkabar eta elur erauntsia hasi zen, eta horrela jarraitu zuen Iturenera iritsi eta bertatik atera ginen arte. Kazkabarrak lurra zuri-zuri jarri zuen. Baina Iturendik atera bezain pronto, kazkabar erauntsia gelditu egin zen». Bera joaldun hasi zenetik joareak ibiltzeko modua ez dela aldatu kontatu digu, baina kopuruak bai «**izan dira Zubie-
tatik Iturenera 6 joaldun bakarrik joandako urteak. Gaur egun kopuruak gora egin du 14-16 joaldun joaten gara**». Ez dira joaldunak bestaren protagonista bakarrak eta moztarok edo joaldunek «**biek garrantzi handia**» dutela «**bakoitzak badu bere egi-
tekoa. Ni joaldun izanda, nerretzat joaldunak xarma berezi bat dauka eta garrantzi
gehiago ematen diet joareei, baina inauteririk moztarorik gabe ez ziren existituko**». Moztarorri artean, bertze hamaika joaldunen erritmoan eginen du Zubietatik Ituren eta Aurtizera bidea. Noiz arte? «**Nork daki! Gorputzak aguantatzen duen arte**».



PRIMI ostatua
 ongi pasa inauteriak!
 Tel. 948 634 052
 Gotiko karrika, 7 - ARANTZA



GOIENBURU
 iturgintza
 iturgintza, kalefakzioa eta gasa eguzki plakak eta biomasa egurrezko kalderak eta aerotermia
 goienburu@gmail.com
 Goienburu, 10 - 31790 ARANTZA - 600 902 723

Ongi pasa inauteriak!

Zurgin lanak orokorrean
Luis Ibarra
 636 701 204
 690 388 263
 Luisibarra@telefonos.com
 Sabatore karrika, 28 - ARANTZA

Armaruak
 Leihoak
 Ateak
 Teilatu berriak
 Parke flotantea
 Tarama
 Teilatu zaharberntzeak
 ongi pasa inauteriak



BURLADA
 Jatetxea

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Eguneko menua
- Karta

Giro ona!

T. 948 634 027 • ARANTZA



TOMAS TELLETXEA
 zaharberritzeak

Esperientzia handiz eskuzko metatako erreforreak egiten dira



Sabatore karrika, 22
 31790 ARANTZA
 Tel.: 636 348 355
 telledetomas@gmail.com

Ongi pasa inauteriak!

ARANTZA

ARANTZAKO INAUTERIAK | Otsailaren 5etik 7ra



EGITARAUA

OTSAILAK 5, ortzeguna

09:00etan Mozorro Zurien **gosaria** Primi ostatuan. **Ondotik** eskolako neska-mutikoei bisita eginen diete bizkarrekoak paratzeko. **Segidan** bi taldetan banatuta Mozorro Zuriak lau baserri auzoetara joanen dira Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoi-larien laguntzarekin. **Egun guztia baserriz-baserri eskean** ibiliko dira. **Arratsaldean** mozorro besta eskolan. **Gauean** Mozorro Zurien **afaria** Primi ostatuan.



OTSAILAK 6, ortzirala

Goizean Mozorro Zurien **gosaria** Primi ostatuan. **Ondotik** herrian barna eskean ibiliko dira Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoi-larien laguntzarekin. **Eguerdian** Mozorro Zurien **bazkaria** Pabloenean. **Egun osoan** eskolako neska-mutikoak baserriz-baserri puxka-puxka ibiliko dira. **Gauean bertso afaria** Aterpean **Amets Arzallus** eta **Andoni Egañarekin**. **Gauean** Emakumeen **afaria** Burlada ostatuan. **Gauerditik aitzinera dantzaldia** Gorapean Migel Anjel Agerralderekin.



OTSAILAK 7, larunbata

Eguerdian Mozorro Zurien **bazkaria** Burlada ostatuan. **Arratsaldean** herriko **ttiki** eta **gaztetxo** mozorrotuen **kalejira**. **Ilunabarrean** herri kirol saioa eta **apustua** frontoian. **Gauean** Mozorro Zurien **afaria** Ekaitza Elkartean. **Gauerditik aitzinera dantzaldia** Gorapean Oharkabe taldearekin.



Beñat MITXELENA DANBORIENA | Arantzako 27 urteko gaztea

«Kantatu eta dantzatzeko kantak joz gozatu egiten dut»

Inauterietan Mozorro Zuriekin akordeoia jotzen ibiliko dira anaia eta biak

Ikasle eta langile fina, akordeoilari ezin hobea, pilotan ona... Ezagutzen dutenek dioten bezala, «**artista**» bat da Beñat Mitxelena. Ikasketaz ingeniari industrialia da, eta lanbidez Landetako lantegi batean mantenimenduan ari dena. Afizioz, berriz, akordeoilaria, pilotaria, mendizalea eta lagunekin egotea gustatzen zaiona, «**bai juergan eta bai mahai-inguruan ere**». Ona izatearena, halere, «**nahiko erlatiboa**» dela dio: «**kontua da zeinekin konparatzen zaituzten**». Baina aitortu digu «**gauzak gustuarekin egitea**» gustatzen zaiola, «**hasitako gauzak bukatzea eta ahal bada dakidan hori hobetu eta gauza berriak ikastea**».

Ttikitatik dabil akordeoiarekin: «**Musika Eskolan sei bat urterekin hasi nintzen, eta ordu-rako eskuin eskuarekin Andre Madalen jotzen banekien, etxean attarekin ikasia**». Zaletasuna familiakoa baitu. «**Etxean betidanik aditu izan dut atta akordeoia jotzen**», adierazi digu: «**orkestretan ere ibilia da urte aunitzez**» eta gogoan du «**larunbatero ezkontzetara jotzera joaten zela**». Atautxi zena ere akordeoilaria zuen: «**herrietan akordeoia jotzen dudanean, oraindik jende aunitz oroitzen da beretaz. Bere istorioak ere kontatu izan dizkirate: apezekin arazoak izaten omen zituen baltsak jotzeagatik. Edo jendea ez bazen dantzara animatzen, jo bitartean dantzatu ere egiten omen zuten**». Eta anaia ere akordeoilaria: «**berak ere ederki jotzen du**», azpimarratu digu. Osaba batek ttikitari erabilitako «**Larri-naga markako akordeoi tiki urdin bat**» izan zen bere lehenbizikoa: «**oraindik etxean dugu, 70 bat urte omen ditu**». Azaldu digu «**soinu bizikoak**» dituela gustukoen, «**lehenagoko estilokoak**». Duela urte bat eta erdi halakoa erosi zuela kontatu digu, nahiz eta etxean baduten non aukeratua, zazpi baitituzte!

Ez dakigu inauterietan horietako zein erabiliko duen, baina badakigu Mozorro Zuriekin baserriz-baserriz eta etkez-etxe dabiltzan fin astinduko dituela behatzak. Akordeoia jo arren, «**berdin-berdin**» gozatzen baitu. «**Gehiago gozatzen dudala ere erranen nuke, nire afizioa baita. Kantatu eta dantzatzeko kantak joz, izugarri gozatzen dut. Eta egia erran, herriko inauterietan lagunek bezala**»

«Arantzako inauteriak aipatzekotan, hagitz juergistak garela erranen nuke, egunero egiten dugu hemen besta»

Beñat MITXELENA

ketak inauterietan batera izan nituen eta ezin ateragelditu nintzen». Azken urteotan, ordea, aukera ez du galtzen. Onartu digunez, lehenbiziko eguneko gosaria du maiteena: «**jendea gogo ikaragarriarekin egoten da eta inauteriak aitzinetik ditugula pentsatze hutsarekin harrotzen gara**». Bide batez, Arantzako inauterietara hurbiltzeko gonbitea ere luzatu du, «**giro bikaina izanen da. Beraz, animatu!**». Hantxe ikusiko dugu Beñat, saltsaren erdian, Mozorro Zuri jantzita, lagunartean ongi pasatzen eta akordeoia jotzen. Berak gozatuz eta ondokoei ere gozaraziz.



ongi pasa inauterietan!

aterpe
inauterietan jotzen zaituzten

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

ongi pasa inauterietan!

Gasa Ura Kalefakzioa

froling

Alemanian gehien saltzen den eguresko galdara

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
484 33 82 30
gotxamutubermut.com

ERAKUSKETA:
Bidasoa, 45 - BERA

ARANTZAKO UDALAK

inauteri zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

ilargi
okindegia

APEZENA

ongi pasa inauterietan!

Enkarguak 948 634 156 - ARANTZA



OKILA
Zuzendegia

• Tarrimak, leihoak, atak, eskailerak...
• Obratuko lanak prokorreran

Leandor Eiza • Mikel Arburua

607 883 968 • Piedade gaina zlg • IGANTZI
mikel@okila.eu



**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA
DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA
ZUZENDARITZA TEKNIKOA**

Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

Ongi pasa inauterietarak!



**TALOTXA
ERAIKUNTZA**

Piedadeko auzoa, 8 - 31790 IGANTZI
608 20 21 26 - 618 90 18 10

**LA VILLA
JATETXEA**



Ortzirala, larunbata eta
igandetan afariak

ONGI PASA INAUTERIARIKI

K. Nagusia, 14 - IGANTZI (Nafarroa)
T. 948 637 290

IGANTZIKO INAUTERIAK | Otsailaren 6 eta 7an



EGITARAUA

OTSAILAK 6, ortzirala
10:00 aldera Berrizaun auzotik hasita, **etxez-etxe eta baserriz-baserri** eskean ibiliko dira gazteak. Herrira bueltan, bidegurutze aldeko etxeetara bisita egingen dute eta gero, Frain auzora joanen dira. **Eguer-dian bazkaria** egingen dute. **Bazkalondan herrian eta Sarrola eta Lasaga auzoetan eskean** ibiliko dira gazteak. **Gauean afaria** egingen dute.



OTSAILAK 7, larunbata
08:00etan Mozorroak elkartu eta **Irisarri** auzora joanen dira gazteak. **11:00 aldera** herrira bueltatu eta **Unanu auzora** eta **Piedade gainera** joanen dira. **Arratsaldean haurrak kalejiran** ibiliko dira. **Ilunabarrean** etxez etxe eskean ibilita banatuko dituzten **boletoen zozketa** egingen dute gazteek, lehenengo saria bildotsa eta bigarrena ardo lotea. **Gauean afaria** egingen dute.




**IGANTZIKO
UDALAK**
Inauteri
zoriontsuak
opa dizkizue
igantziar
eta bisitari
guztiei

**ONGI PASA
INAUTERIARIKI** Inauterietako Zerbitzuak



• PINADIEN BALORAZIOAK
• LUR NEURKETAK
• KARTOGRAFIA, PLANOAK ...
• INGURUMEN TXOSTENAK
OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA - T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com

OSPAKIZUNAK → BADATOR MOZORRO BESTA

Inauteriek ere badituzte bere arauak eta prezioak

Serokobordako Alejandro Santestebanen ustez, ttuntturroek 60 urteko historia besterik ez dute

Fermin ETXEKOLONEA

Inauteriak gainean ditugu eta egitarauaren berri zehatza aldizkari honetako gehigarrian duzue. Iduri ez badu ere, inauteriek ere bere legeak badituzte. Gazteak elkarteak prestatzen ditu inauteriak eta inauterietako arauak eta prezioak agertu dituzte. Puxkak biltzen beranduenez 09:15ean hasiko dira. 12:00etan gosariko mahaia bildu eta estalpeko mahaia libre utziko da. Azken urteetan bezala, 19:30ean

mahaitik altxatu beharko da. Afariak 22:00etan izanen dira. Bazkarirako txartelak 12:30ak baino lehen hartu beharko dira. Elkartetik kanpo daudenentzako prezioak: Gosaria, 12 euro; bazkaria, 20 euro; afaria, 20 euro. Larunbateko afaria eta asteazkeneko bazkaria, 15 euro. Eserita gosaltzen duen haurrak 12 euro ordaindu beharko du, beste la pintxo bana emanen zaie borondatez. Denek borondatea jarrita, gauzak errezago egiten direnez, iñotetako larunbatean gazteen artean ardurak banatuko dira.

TTUNTURROEK 60 URTE

Serokobordako Alejandro Santesteban, joaldun zaleak gogotik ikertu du inauteriaren eta joaldunen historia. Ttuntturroak, bere us-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Errege bezperako joare soinuek iragarri dituzte inauteriak

Urteroko legez, Errege bezperan Zubitako haurrak, joareak bizkarrean jarri eta eskean ibili ziren. Aurten haur asko bildu ziren eta nahiz eta laino artean ibili, gustora egin zuten herrietako etxeetan baita baserrietan ere urteroko bisita. Arratsean helduak ere joaten dira Aurtitz eta Iturenera, eta batzuk Doneztebera ere joaten dira erregeei ongi etorria egitera.

tez, orain dela 60 urte, 1955 inguruan, hasi ziren janzten. Zumea edo zimitzarekin eman zioten forma, estruktura. Ordura arte zapelarekin edo ibiltzen omen ziren. Dena den, ez omen ziren orain bezainbertze joaldun ibiltzen eta dena informalagoa izaten omen zen. Horren erakusgarri, lau lagun joan omen ziren joaldun Iturenera ttuntturroei inaugurazioa emanez: Manuel Loiarte, Ignacio Santesteban, Perico Monaco eta Santiago Mutuberria.



Gure esku dago lanean

Gure Esku dago ekimenarekin bat eginez, jendea animatzen hasia da. Ardurak banatuak daude. Jasone Astibia eta Kattalin Paul dira herriko arduradunak eta herri mailan lantzen ari dira. Mugimendua hasi eta ea jendea animatzen joaten den.

Ludotekan kargu aldaketak

Txitxilo elkartearen ludotekan kargu aldaketak izan dira: lehendakaria Olga Garrote da orain, lehendakari orde Karmele Bendoiro eta idazkaria Yolanda Salaburu, hiruak berriak karguan. Diruzain lanean Iratxe Telletxeak segitzen du.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- artekari@artekari.com
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

EZKURRA

GIZARTEA → GARAI BATEAN BASELIZA ZEGOEN

Baztaneko bordako gurutzea berritu eta ingurua txukundu dute

Gurutze Sainduaren ermitari urtean zehar beste erabilpenen bat ematea egokia litzateke

Fernando ETXEBERRIA

Baztaneko borda inguruan baseliza izaten zen XVIII. mendera arte. 1721eko uztailaren 19an gotzaindegiko ordezkari batek Ezkurra bisitatu zuen eta alkate eta bizilagunei eskatu zien ermita hori moldatzeko, oso egocera kaxkarrean eta erortzeko puntuan zegoelako. Hala ez egitekotan, sei hilabeteren buruan itxi beharko zela.

Sei urte beranduago ordezkari hori bera etorri zen, beste baseliza bat herritik hurbilago egitea eskatuz, baina

hori bai, bakarrik bizilagunen diru ekarpenekin, hauek erosi behar baitzuten lurra eta erai-ki.

Lehenagoko baseliza zegoen lekuan gurutze bat jartzeko ere aholkatu zuen, bertan izan zela seinale gisara. Horrelaxe egin zuten eta harrizko gurutzea jarri zuten, baina denborarekin zati bat erori zen. Orain, lurra- ren jabe den Santos Telletxeak ingurua garbitu eta falta zen zatia jarri du, eta aski dotore gelditu da lekua.

1727ko apirilaren 27an jakinarazi zion Ezkurrako alkateak gotzaindegiairi Gurutze Sainduaren baselizako lanak bukatuak zirela eta herrira etortzeko, lekuak meza emateko baldintza guztiak betetzen zituela ziurtatzea.

Baina gaur egun, urtean bitan bakarrik era-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Gurutzea lehen zegoen bezala ageri da koadro txikian eta orain moldatu eta ingurua txukundu ondok nola gelditu den ikusten da argazki handian.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Urte bukaerako afaria Barrankan

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Ezkurra, Eratsun eta Leitzako jendea bildu zen Barranka ostatuko afariarekin urtea agurtzera eta berriari ongi etorria ematera. 45 lagun izan ziren, ederki afaldu ondok urte berria pozez, musikaz eta kantuz agurtu zutenak.

biltzen da Gurutze Sainduaren ermita hori, uztailaren 3an eta irai-

laren 14an. Horregatik, interesgarria izanen litzateke urteko gainera-

ko egunetan beste erabilpenen bat topatzea eraikinari.

ttipi-ttapa

**NEGUKO ESKAINTZA
BEREZIAK**

KOAKONTAKO BIDEA, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458
kulturrakari@ttipi.eus | www.kulturrakari.com | www.ttipi.eus

2.500	↔	143€
FLYER A5		
5.000	↔	165€
FLYER A5		

KILMETAN | GAZTANIA BARRA | IMPRENTA BARRA | GARRANDA BARRA | BEZA BARRA | 174A, 10,40AN EZKAN

GIZARTEA → 25 EURO URTE OSOA

Behekolandako gimnasioko urteko kuota ordaintzeko epea zabalik da

Gaur egun 59 bazkide ditu Asinko aldeko zerbitzu berriak

TTIPI-TTAPA

Joan den ekainaz gozotik kirola egiteko aukera berria zabaldu zuen Udalak, Behekolandako gimnasioarekin. Ordura arte herrian inoiz izan ez zen zerbitzua ireki zuen Asinko inguruko nabe batean, udal gimnasioa eta jendea hasi da poliki-poliki muskulazio tresnekin

eta bertan dauden beste aparatuekin trebatzen. Hain zuzen, udaletxetik aipatu digutenez, gauregun 59 bazkide ditu gimnasioak.

Urte osorako bazkide egiteak 25 euroko prezioa du eta urte berrian sartuak garenez, 2015eko kuota ordaintzeko epea zabalik dute Udaletxean bazkide direnek, baita bazkide berri egin nahi dutenek ere. Modu berean, orain arte bazkide izan eta baja eman nahi dutenek ere udaletxean jakinarazi beharko dute.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Eguberriak bukatu orduko karnabalei begira

Ezin aipatu gabe utzi Eguberrietako ospakizunak, Olentzero eta Maridomingi eta Errege Magoak urtero bezala agertu baitziren herrira. Baina orain aurrera begiratu eta karnabalak ditugu begibistan. Dagoeneko Guraso Elkarteak egin du bilera eta erabaki du inauterietako astelehenerako aurtengo gaia: Brasil. Bazkarirako txartelak ere laister jarriko dituzte salgai Elenan ostatuan eta Ximonen harategian.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUNEA • 948 230 634

LEITZA

OBRAK → UDALAK ETA AUZOTARREK ELKARREKIN

Uholde arriskuak ekiditeko zenbait lan egin dituzte

Franki erreka-ko behekaldeko eta Larbaidegiko bideko arazoak konpondu dituzte

JM BARRIOLA

Azken urteetan euriteen ondorioz kalte handiak izan dira. Esate baterako, Leitzalarretik etortzen den Franki erreka-ko beheko partean, baserri ondoan, urak bidea ia eraman zuen duela urte gutxi. Geroztik erdi zintzilik zegoen herri bidea. Egoera aztertu ondoren beharrezko baimenak eskuratu eta hariarekin pareta bat eraiki da. Horrela, bidea egonkortu eta neguan erreka izaten duen ur emari handietatik babestea da asmoa. Larbaidegiko bidean ere sortzen



ARGAZKIA: LEITZAKO UDALA

Franki erreka-ko beheko zatian harrizko pareta egin dute.

dira arazoak. Bertan euriteen ondorioz erreka osoa sortu eta bidetik joaten da, kalte ugari eraginez. Auzotarren eskariari erantzun eta hodia sartu da ur emaria beste aldetik bideratzeko. Udalak eta auzotarrek elkarlanean burutu dute lan hau auzolanean.

Ihoteak gainean

Datorren larunbatean hasiko zaizkigu ihoteak eta urteroko modu-

an pesta alaiak izatea aurreikusten da (gehi-garrian duzue egitaraua). Azken urteetan bezalaxe udalak pabilioi bat alokatu du herritarrei gurdiak apaindu eta ihoteen inguruko lanak burutzeko toki bat eskaintzeko. Ongi pasa!

Herri-mobilizazioak

Ilbeltzaren 10ean Bilbon egindako manifestazioara herritar ugari joan ziren. Hiru autobus bete ziren Leitza, guztira 170 herritar inguru bilduta eta euren kotxea hartuta gehiago ere joan ziren euskal presoen eskubideen alde elkartasuna adierazteko asmotan. Handik bi egunetara Euskal Herrian izan ziren atxiloketei erantzunez 60 herritarrek konzentrazioak egin zituzten *Aski da! erpresioari stop eta atxilotuak askatzeko eta konponbideari erasorik ez izatea* aldarrikatuz eta honetaz gain, ekitaldi desberdinak ere burutu dira.



Ba al zenekien

Korrika Leitzaatik pasako dela martxoaren 21ean, goizaldeko 4ak inguruan. Jadanik kilometroak erosi eta Korrika laguntza eman daiteke.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Zer diote Leitza-ko paretek?

Aurrera doaz kale komunikazioaren inguruan egiten ari den lanketarekin. Lehen saioaren ondoren, dagoeneko 200 iritzi jasoak zituzten. Horretarako ekimen desberdinak egin dituzte, buzoiak jarri, kalean iritzi bilketa egin institutuan, ostiraletako azokan, eskolako atarian, tabernetan... 7 herritar ari dira burubelari lan horretan. Ilbeltzaren 16an egin dute bigarren saioa eta hurrengo ilbeltzaren 29an izanen da 18:30ean Udaletxeko aretoan.



ARGAZKIA: MIEL MARI ELOSEGI

I. San Silbestre lasterketa jendetsua

Urtezahar egunean lehen aldiz San Silbestre lasterketa egin zen herrian. Denok bat Leitza-ko guraso elkarteak izan zen antolatzailea, udalaren laguntzarekin. Arrakasta handia izan zuen ekimenak 220 laisterkari inguruk parte hartu baituzten. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera herriko alde zaharreko bideetan zehar ibili ziren korrikalariak. Oso balorazio ona egin dute antolatzaileek eta datorren urteetara begira berriz antolatzeko asmoetan dira.

HEZIKETA

Haurrentzako masaje tailerra antolatu dute gizarte zerbitzuek

JM BARRIOLA

0-12 hilabete arteko haurrentzat masaje tailerra antolatu dute gizarte zerbitzuek. Lotura afektiboak egin eta indartu, koliko zein hai-zeekin lagundu, umeen loa erraztu, haurra-ekin gustora egoteko tartea hartu, zainketa eta haziketari buruzko zalantzak eta kezak argitu eta konpartitzeko tartea eskaintzea da tailer hauen helburua. Mentxu Isturitz gizarte hezitzaileak zuzenduko ditu saioak eta ostiraletan, otsailaren 6, 13, 20, 27 eta martxoaren 6an izanen dira Udaletxeko lehenengo solairuan 10:30etik 12:00ak arte. Plaza mugatuak daudenez interesa dutenek ilbeltzaren 28a baino lehenago deitu beharko dute Gizarte Zerbitzuetara 948510840 zenbakira, informazio gehiago ere bertan eskuratu liteke.

OSPAKIZUNAK → KALEJIRA, ESKEA, AFARIAK, MUS TXAPELKETA...

Inauteri giroa urtarrilaren 30 eta 31n zabalduko da herrian

Karroza desfilean parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrak

Juana Mari SAIZAR

Herriko inauteriak urtarrilaren 30 eta 31n ospatuko dira. Urteroko ohiturarekin jarraituz, ostiralean haurrek eskolatik kalejira egingo dute herrian barrena eta hori amaitzean merienda izango dute. 18:00etan hasiko da herriko eskea eta musikaren eritimoan harat eta honat giro bikainean ibili nahi duen orori gonbitea luzatua dago. Gauean Lagun Artekoek afaria egingo dute Pake Toki elkartearen. 22:00etan berriz Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu da, hau ere, Pake Tokin. Musean aritu nahi duenak momentuan bertan eman beharko du izena. Larunbata izaten da inauterietako egun han-



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Herriko txoko guztietara zabalduko da umore ona trikiti doinuen laguntzaz.

dia. Goizean goizetik baserrietako eskean ibiliko dira Lagun Artekoak. Bateko arin arin, beste fan-dango... baserrietan eskaintzen dizkieten mokadu goxo eta tragoxka artean pasako dute gazteek eguna. 17:00ak aldera itzuliko dira herrira eta orduan egingo da karrozen kalejira. Aurten antolatzaileek saiakera egin nahi dute karroza desfile hau indartzeko.

Horregatik, herritarrak animatu nahi dituzte beraien karrozak ateratzera, familian, lagun artean... ez du ezer handiegirik behar! Zerbait prestatu eta kalera! Gainera aurten nahiz eta antzerkirik ez egon, ka-

rozak emanaldiren bat egin behar dutela aipatu dute. Beraz, ikusi beharko da zer prestatu duten herritarrek! Aurten berrikuntza bat ere izango da, trikipoteoa antolatu baitute herrian ba-



Ba al zenekien

Areson eraikitzeko asmoa dagoen etxeetan jendea apuntatzen hasia dela? mugitu eta ez galdu aukera hau! Ez da denbora asko geratzen zerrendak itxeko eta!

rena. 21:30ean afaria izango da Pake-Tokin eta afal ondoren musika eta parranda.

Jone Lozano aske

Jone Lozano herritarra aske geratu da urtarrilaren 8an. Polizia espainarrak Lyongo espetetik Madrileran eraman zuen urtarrilaren 7an Auzitegi Nazionalak deituta. Biharamunean Madrilgo epailearen aurretik igaro eta gero, aske geratu zen.

Zuberoko ikastolari laguntza

Euskararen egunean bildu zen dirua Ziburuko ikastolari bidaltzeko asmoa zegoela aurreratu genizuen. Bidali zaio jada, eta egia esan zoriontzekoa da aresoarren jarrera. Egun osoan zehar egindako ekintzetan 1000 euro garbi lortu ziren, eta juxtu horiexek bidali dira Ziburura. Mila esker herritar guztiei Pesta Batzordearen partez eta jarrai dezagun euskararen alde gauzak egiten!

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu isiko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.
Zure idela, produktu, zaletasun eta gaitzentzat erreferentzia puntua.
Ner garen eta nondik gaitzen jakiteko abiapuntua.
Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.
Interneten bereizten gaituen puntua.
Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.
Gure komunikareentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarrera izango dena.
Anima zaitza eta sortu zure .eus domeinu-izena.
Informazio gehiago: www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua

BAZTAN

GIZARTEA → URTARRILAREN 8AN

Nafarroako parlamentarien bisita izan dute Elizondoko Lanbide Eskolan

Eraikin berria egitea eskatu dute langileek

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolara bisita egin zuten urtarrilaren 8an Nafarroako Parlamentuko alderdi guztietako ordezkariak. Bertatik bertara, 50 urte bete behar dituen ikastetxearen egoera kezagarria ikusi zuten eta langileek, eraikin berri baten beharra adierazi zieten. Bilerara gonbidatuak zeuden Berako Toki Ona, Doneztebeko Mendaur eta Lekarozko Institutuetako zuzendariak, baita Baztan, Beintza-Labaien, Lesaka eta Berako udal ordezkariak ere.

Elizondoko Lanbide Eskolako Komisioak eskaera zehatzak egin zizkien parlamentariari. Alde batetik, «egungo eraikuntza dagoen bezala mantentzea bertze kurtsu batez, babes neurriak ere mantentzea eta hauen jarraipen zo-

rrotza egitea». Aldi berean, eraikin berri bat egiteko zereginei berehala ekin behar zaiela ere uste dute. Hezkuntza Departamentuak lortu duen dirua (300.000 euro inguru) egungo segurtasun neurriak mantendu eta etorkizuneko ikastetxe berria egiteko erabiltzea (azterketak, proiektuak...) eskatu zuten langileek. Eraikin berria egin bitartean, egungo ikasketak Elizondoko egoitza berean izaten segitzea eskatu dute eta «ezbeharrak aukera bihurtuz, Hezkuntza Departamentuak eskualde honi Lanbide Heziketa eguneratua eta euskalduna eskaintzea bideratu».

50. URTEURRENA ERAIKINAREN EGOERA KAXKARRAREKIN

Elizondoko Lanbide Eskola 50 urte betetzea doa eta ibilbide luzea egin du Baztan Bidasoako Lanbide Heziketan. Gaur egun, ikastetxean 157 ikasle ikasten dute Lanbide Heziketak eskaintzen ditu-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Nafarroako parlamentariak Elizondoko Lanbide Eskolako instalazioak begira.

en maila ezberdinak. Gainera, azken ikasturteotan etorkizunera begirako hausnarketa baten ondorioz, euskarazko Lanbide Heziketako hezkuntza eskaintza berritu eta zabaltzeko asmoz, hainbat urrats eman dira Hezkuntza Sailaren oniritziarekin.

Hala ere, Elizondoko Lanbide Eskolaren egitasmo honen traba nagusia kokaturik dagoen egoitza edo eraikina da. Izan ere, eraikinak ez du eskualdean beharrez-

koa den hezkuntza eskaintza eguneratzeko adina leku fisiko eta bertalde, eraikinaren berritze eta mantenu ezak ondorioak izan ditu. Hain zuzen ere, jogan den ekainaren 30ean teilatu zati bat erori zen eta gertaera horrek agerian utzi zuen ikastetxearen egoera kaxkarrak. Une honek, teilatua puntalez jositako ikastetxearen kideon segurtasuna bermatzeko.

Larria den egoera ho-

ni irtenbide bat emate aldera, Hezkuntza Saila eraikina konpontzeko 300.000 euroko gastua egiteko prest agerida. Baina, honek ez luke arazoa erabat konponduko, izan ere, gaur egungo Lanbide Heziketa eskaintza eguneratzeko espazio fisiko handiagoa behar baita. Gainera ikastetxeak duen barne estruktura zaharkitze arazoa ere ezta konpontzen (kalefakzioa, elektrizitatea, makinaria, isolamendua...).

LARRALDEA SAGARDOTEGIAN ILBELTZAREN 16AN

Dolores Redondo idazleak ireki du aurtengoan Nafarroako txotxeko sagardotegi denboraldia

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Larralde sagardotegian ireki zuten urtarrilaren 16an, 2015eko txotxeko sagardotegi denboraldia. Baztango bazterrek bere misteriozko trilogian ezagutzera eman dituen Dolores Redondo idazlea izan zen sagardo berria dastatzen lehena. Lekarozko Larraldearekin batera, Lesakako Linddurrenborda, Beruete-ko Behetxonea, Aldazko Martitxonea eta Lekunberriko Toki Alai

sagardotegiek osatzen dute Dolarrea, Nafarroako Sagardotegien Elkartea eta aurtun 300.000 litro eskas kupeleratu dituzte. 2011n ere Lekarozen ireki zuten Nafarroako sagardotegi denboraldia eta orduan Undiano Mallenco futboleko nazioarteko epaile ezaguna izan zen arduraduna. Iaz, berriz, Lesakako Linddurrenbordan ireki zuten denboraldia Patxi eta Donato Larretxea anaiek.



4

LOTE

ZOKKETATUKO
DITUGU

urtean zehar

ARKUPE

Gozotegia · Txokolategia

Elizondo-Irurita (Nafarroa) · Tf. 948 45 23 93
info@arkupegozotegia.com · www.arkupegozotegia.com



GIZARTEA → UDAL GOBERNU TALDEAK

Lekarozko Aroztegiko asmoa 'pelotazo urbanistikoa' dela uste du

Baztango beharrek ez duela zer ikusirik dio

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren tramitazioak (UGPS) babestu nahi duen hirigintza garapena «pelotazo urbanistikoa hutsa» dela salatu du Udal Gobernu Taldeak eta «ez du batera zerikusirik, ez Baztango beharrek, ez Nafarroa turismo aldetik bultzatzearekin». Ekimen horren egiazko interes bakarra 252 etxebizitza garatzea dela uste du gobernu taldeak, «gehienak luxuzkoak, golf-zeila iri lotuak, eta golf-zeila aitzakia bertzerik ez da. Kontua da espekulazio hutsezko hirigintza-operazio zaharrak berritzea». Nafarroako Gobernua legearen kontra ari dela ere uste du, hortaz UGPS hori geldiarazteko eta haren tramitazioa ezesteko eskatu diote, gainerakoa, Baztanek indar osoz egingen dio kontra, «bai arlo instituzionalean, bai arlo sozialean, bai arlo judizialean, Baztanen aurkako eraso latza baita hirigintzaren eta ingurumenaren aldetik, bai eta espekulazio hutsezko operazio bat, ez

baitu zerikusirik herritarren interes sozialekin».

Illo honetatik, *Aroztegia eta gero zer* plataformak deituta ehun bat lagun bildu zituen elkarretaratzea ere egin zen Lekarozen. Aroztegia eta gero zer Plataformak argitara eman zuen oharrean, alarma egoera piztu dela adierazi zuen. Oharrak zioenez, «harrigarria baina egia. Nafarroa Auzitegi Nagusiak Aroztegiko egitasmo urbanistikoespekulatuzailea gelditu ondotik, enpresa bultzatzaileak Udalez Gaindiko Plan Sektoriala erabiliz betiko proiektua Nafarroako Gobernuarekin zuzenean tramitatu egin nahi du, horrela Lekarozko herria eta Baztango Udala eta Baztar Nagusia bazter batean utziz. A ze demokrazia!».



UTZITAKO ARGAZKIA

Aniz eta Berroetako gazteak etxez etxe dabiltza inauterietan

Urte berriarekin baterat bestaz ez aspertzeko Anizko inauteriak izan dituzte urtarilaren 17an. Goizean Mendiarte kultur elkartearen elkartu ziren Aniz eta Berroetako gazteak eta gosaldia ondotik etxez etxe ibili ziren puxkak biltzen: arrautzak, xixtorra, xingarra... etxe guztietan egonaldia egin ondotik, bildutako puxkekin afaria izan zuten elkartearen. Larunbatean, urtarilaren 24an, gauza bera egingen dute, baina hontakoan Berroetan.

GIZARTE BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN FAMILIEI LAGUNTZEKO

La Caixaren Gizarte Ekintzak 10.000 euroko dirulaguntza eman dio udalari

TTIPI-TTAPA

Gizarte bazterketa arriskuan daudenei laguntzeko programak indartzea da laguntza hauen helburua. 10.000 euro horietatik zatirik handiena, 5.000 euro, haur eta familiekin lotura duten proiektuetarako bideratuko dituzte. 2.000 euro adinekoen zuzendutako proiektuetarako izanen dira, 2.000 euro larrialdi egoereta-



UTZITAKO ARGAZKIA

La Caixako eta Gizarte zerbitzuetako ordezkariak. rako eta 1.000 euro bestea sustatzeko Udalak gizarte lan bako ekintzak bultzatu ditzan.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak
Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA | Telleria auzoa · LEXARÓZ | 948 452121 · 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

BAZTAN

GIZARTEA → UPN-K ADIERAZITAKOARI ETA EGUNKARI BATEAN ARGITARATUTAKOARI ERANTZUNEZ

Kintoko herrilurretan ez duela borda bat handitzeko baimenik eman dio Udalak

Hasierako prozedurak ez duela arau bakar bat bera ere hautsi adierazi du

TTIPI-TTAPA

Baztango Batzar nagusiak ez du Kintoan borda bat handitzeko inolako baimenik eman eta ez ditu horrelako obra baimenik ematen. Horrela erantzun dio Udalak egunkari batean agertutakoari.

Udalak dioenez, urtarrilaren 2an ikusi zen kasuan eskaera bat tramitatzen ari da eta ez da inolako baimenik gabeko obrarik hasi. «Tramitearen lehendabiziko pausoa, urtarrilaren 2ko Batzar Nagusian onartu zena, lurraren okupazioa da. Hori baino lehen bateragarritasun urbanistikoko txosten bat egin zen, bertze kasuetan egiten den bezala. Kasu hau Kintoko Mankomunitateak kudeatzen duen lurraren barnean dago (Baztango eta Erroko Udalek osatzen dutena) eta honek oniritzia eman du».

Bi Udalek beren lur eremuetan baimen urbanistikoak emateko eskumena dute eta kasu hontan Baztani dagokio. Herri lurrean okupatzeko baimena eskuratu ondotik, eta obra baimena eskatu baino lehen, Nafarroako Gobernuak jarduera baimentzeko espreski emandako ebazpena



UTZITAKO ARGAZKIA

BKTren Eguberrietako saskia Irurritako Maite Saharrearentzat

Urtero bezala, Eguberrietako saskia zozketatu du aurten ere Baztango Kirol Taldeak eta Irurritako Maite Saharrea suertatu da saridun. Argazkian, sariduna ageri da, BKT eskubaloi taldeko zuzendaritza batzordeko Rafa Mitxelenarekin.

beharko du eskatzaileak, lur ez-urbanizagarriaren egoteagatik.

Udal gobernu taldearen erranetan «UPNk egiten duen konparaketak datu garrantzitsu bat uzten du kanpo, Irurritako kasuak ez zuen, ez Udaleko ezta Nafarroako Gobernuko baimenik ere. Horregatik abiatu zen zehapen espediente, eraikinaren eraispen eta errealtate fisikoaren berritzearekin akitu zena, gaur egungo legeak hala eskatzen du eta. Gainera, UPNk kasu hontan proposatu zuena zen lurra birkalkifikatzea egoera ilegal bat legalizatzeko. Hau da, legezko estaldura bat egitea gaur egungo legeak espreski debekatzeko duen arau hauste urbanistikoko batendako. Laburtuz, UPNk Udala

Gobernuari prebarikatzeari eskatzen zion. Kintoko kasuan berriz, hasitako prozedurak ez du arau bakar bat bera ere hausten».

Laburbilduz, UPNren aldetik gobernu honen desakreditazioaren saiakera desesperatu baten aitzinean gaudela uste du udal gobernu taldeak, «UPNk prebarikatzeari eta tranpak egitea proposatzen du eta guk gardentasunez gobernatzea posible dela erakusten ari gara eta araudia betez. Urteetan ustelkeria eta klientelismoari esker gobernatu du UPNk eta erregimena erortzen ari dela ikusten duelarik bere bide bakarra *denok egiten ditugu tranpak* erratea da. Azeriak buztana luze, berak bezala bertzeek ere hala dutela uste!».

Bortzeko haundian

Ilbeltzaren 25ean, igandean 19:00etan bertso trama izanen dute Arizkunenean, Odei Barroso, Alaia Martin, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin. Fernando Anbustegi izanen da gai-jartzailea.

Ilbeltzaren 30ean, 22:30ean, Bi Bala bertso musikatuak izanen dituzte Elizondoko Intza ostatuan. Bertso Eskolak eta Intza ostatak elkarlanean antolatu dute emanaldia.

Bertso eskolaren bosgarren urteurrenko ekitaldiekin akitzeko, ilbeltzaren 31n, Gizakunde eguna dela eta Jantziloren epaiketara eta afaria bertsolarietara izanen da aurtengogan Erratzuko plazan eta elkartean, arratseko 10etatik aitzinera.

FLASH

Liburutegia berriz zabalik

Uztailaren 4ko uholdeez geroztik itxia zegoen Baztango Liburutegiak bere ateak ireki ditu urtarrilaren 12an. Oraindik barneko zenbait lan egitea falta bada ere, arratsaldeko 5etatik 8ak biztarte irekia egoten da bertaratu nahi duen guztiarentzako. Uholdeen aitzinetik liburuak, DVDak etxerat eraman zituztenak ere itzultzen hasiak dira.

Bizi testamentua eta heriotza egokiaz

Bizi testamentua eta heriotza egokiaren inguruko Zineforum eta solasaldia izanen da urtarrilaren 29an, arratseko 7etan Arizkunenean kultur etxeko hitzaldi aretoan (3. solairua). *Borondatezko heriotza zinean* filma eskainiko dute eta solasaldia Manuel Eciolaza Carballoren eskuetik izanen da. Familia medikua eta Nafarroako Duintasunez hiltzeko eskubidearen aldeko elkarteko burua da. Ekintza, Duintasunez hiltzeko eskubideko elkartek eta Udalak antolatua da.

Nobela Beltzaren Astea

Egunotan burutzen ari da Nobela Beltzaren Astea. Egitarau zehatza, 4. orrian.

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → URTARRILAREN 30EAN ILARTASUN EGUNA

Ilar-jate solidarioa antolatu dute isunei aurre egiteko

Txartelak salgai daude 20 euroren truke

TTIPI-TTAPA

Ikur inposaketa ondorioz jarritako isunei aurre egiteko (3.600 euro), urtarrilaren 31rako ilar-jate solidario bat antolatu da herrian. Afera ilun huni buelta eman, eta elkarren artean ongi pasatzeko eta sustengua adierazteko baliatu nahi da besta: Ilar-jatean parte hartuz, elkartasuna erakutsi nahi denez Ilartasun Eguna deitu zaio ekitaldiari.

Azketako aparkalekuan xapito (karpa) handi bat jarriko da (lasai, berogailua izanen da).

Egitaraua eguerdian hasiko da, aperitifa musikaz animaturik izanen baita, eta bazkariaren ondotik kontzertuak eskeiniko dire, herriko eta inguruko musikariekin.

Menua hau da: entsalada, ilarrak sakramentuekin, herritarrek egindako pastizak eta desertak, eta xanpain sorbetea!! Hori dena, gehi kontzertu pila bat 20 eurotan. Eta besta hantxe luzatzeko ideia bada, ostatuan ogitar-tekoak eta musika izanen dira. Bazkariko

txartelak toki hauetan daude salgai: herrian Graxiana eta Altzatean; Saran Herriko Etxeko edantegian, eta Urdazubin Montxon.

Gan den urtean 8 herritarrek jaso zuten isuna nahikoa ez bazen, berriki (urtarrilaren lehenengo egunetan) ber-tze herritar batek ere 450 euroko isuna jaso du. Azkenekoa ote da? Gehiago ailegatuko dire oraindik? Egun hartan plazan zirenak ez daude batere trankil.

Ba al zenekien

Urtarrileko lehenbiziko hamabortzaldian Museoa itxita egona dela. Lezea berriz, aste hon-darretan edeki zen. Orain ia ordutegi norma-la dute biek.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Ikur inposaketak salatzeko egindako elkarretaratzean parte hartu zutenei jarritako isunak ordaintzen laguntzeko eginen da ekitaldia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Neguko pilota txapelketaren finala

Abenduaren 20an jokatu zen Neguko pilota txapelketaren finala. Partida borrokatua izan zen, baina azkenean Olivie eta Kepak irabazi zieten Kaiet eta Frantxixkori (40 eta 32). Ondotik Arleun elkartean afari eder batekin ospatu zuten.

ferreteria
Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 10EAN

Jokin Etxart izendatu dute Fabaren Errege

Azoka, desfile koloretsua, zaldunen arteko lehiak eta bertze hainbat ekitaldi izan ziren

TTIPI-TTAPA

Denboran gibelera egin zuten urtarrilaren 10ean Urdazubin, Fabaren erregea korroatzeko ospakizunaren bidez. Izan ere, Nafarroako antzinako erresuman Erdi Aroan zegoen ohitura zaharra errepikatu zuten bertze behin Muthiko Alaiak elkarteak antolatutako ekitaldian. Aurtengoan Axulargaineko Jokin Etxart 12 ur-

teko gaztetxoak izan du ohore hori, Salbatoreko monastegian egin zen ekitaldian.

Pasa den abenduan egin zen aukeraketa herriko Gaiñara elkartearen. Hamar neska-mutikok parte hartu zuten hautaketa prozesuan. Mahai bueltan elkartuta, errege-opil edo errosko zatiak dastatu zituzten, Jokinek barnean baba topatu zuen arte.

Fabaren erregea korroatzeko erritua 1920ko hamarkadan berreskuratu zuen Ignacio Baleztena leitzarrak, eta 1960ko hamarkadatik aurrera Muthiko Alaiak elkarteak Nafarroan herriko antolatutako erabakia hartu zuen.



ARGAZKIAK: ALFIL COMUNICACION ETA JUAN MARI ONDIKOL

Jokin Etxart Fabaren Errege izendatu berria eta zaldunen arteko lehia ezpatarekin.

Aurten Urdazubiren txanda izan da eta egun osoan hainbat ospakizun egin dituzte, ber-

tzek bertze, karriketan barna egin den desfile koloretsua, Artisautza azoka, falkoneria era-

kusketak, zaldunen arteko lehiak, Iturengo jolaldunak eta musika ere izan ziren.

NEGUKO ESKAINTZA BEREZIAK

2.000 ↔ 156€
GUTUN-AZAL 22x11

5.000 ↔ 125€
FAKTURA ORRI A4

KOLORETAN | DISEÑUA BARNE | IMPRENTA BARNE | GARRAKA BARNE | BEZA BARNE | EPEA: 10 LAN EGUN

KOSKONTAKO BIDEA, 07-1 | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.eus | www.kulturkari.com | www.ttipi.eus

GIZARTEA → ESKOLETAN KAZETARI, MARRAZKILARI ETA JUDUEN KONTRAKO ATENTATUAK AIPATU DITUZTE IKASLEEKIN

Charlie Hebdoren kontrako atentatuak zer erran haundia sortu du hemen ere

Atentatuaren ondoko ale berria erosteko 300 galde izan dituzte Lekuonaren etxean

Franck DOLOSOR

Charlie Hebdo aste-kari satirikoaren kontrako atentatuak samina, kezka eta haserre haundia sortu du Senperen ere. Cabu marrazkilaria zen ezagunena haur-rentzat egiten ziren telebista saioetan agertzen baitzen duela zombait urte. 1992az geroz, bertze motako marrazkiak egiten zituen Charlie Hebdo mugarik ez zuen agerkari umoretsuarentzat. Bere heriotzak zur eta lur utzi ditu herriar frango. U-saian ez dira hainbertze astekari saltzen gure herrian baina atentatuaren ondoko ale berria erosteko 300 galde izan dituzte Lekuonaren etxean. Bertzalde, he-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Kontrabandoa, alemanen okupazioa edo Miarritzeko bonbardaketa, denak aise eta alaiki aipatzen zituen Honorine zenak.

rriko eskoletan kazetari, marrazkilari eta juduen kontrako atentatuak aipatu dituzte ikaslee-kin. Solasaldiak burutu dituen irakasle batek dio kultura eta hezkuntza aterabide bakarrak direla islamarekin deus ikusteko ez duen fanatismoaren kontra borrokatzeko.

Parisen berean Jeremy Trottin kazetari senperterak hurbiletik segitu ditu erasoak eta ondoko egunetan egin diren mobilizazioak.

Azken urteetan BFM-TV albistegi telebistarentzat lan egiten duen gazteak dio «egun gogorak izan direla». Jeremyren ustez «zoritxarrez arazoa ez da batera konpondua 10 urteko haur askok ez baitute minutu bateko isilutena egin nahi izan». Frantziako lehen ministroak iragarri dituen segurtasun neurri berriak ez dira aski izanen egotzari buru egiteko, arazoa sakonagoa baita Trottinaren arabera.

Agur Honorine eta Edouard

Azken egun hauetan, beren azken egoitzarat segituak izan dira bi herriar ezagun: Honorine Chipy eta Edouard Gachen. 80 urteko gizona biziki estimatua zen urteetan herriko etxeko idazkaria izan baitzen. Erretiroa hartuta ere herriarrik eta bereziki laborariak lagundu izan ditu paperak betetzen.

Bertzalde, Audenete-ko zuhaitzaren azken adaska erori dela azpi-

marratu du jaun erreto-reak Honorine Chipy, sortzez Borthaire Xabateneko etxeko andrea-ri egin zaion azken agurrean. 95 urte bete berri zituen ibarrundar maitagarriak. Pilotan, berdin kontrabandean, laborantzan... deneri lotu behar izan zuen lau alaba mundurat ekarri zituen andreak. Honorine zenaren memoriaren parte bat *Senperetik Senpererat* liburuan agertzen da. Miarritzeko bonbardaketaren lekuko zuzena izan zen 1944ko martxoaren 27an. Orduan neskatu zen Uztaritzen eta egun hortan Miarritzera joana zen bizikletaz. Bonbardaketan biziki beldurtu zen bai eta kolpatu bonba baten perdira hartu baizuen aztalean. 1960ko hamarkadan begi txarrez ikusi zuen laborariari Ortzango erreka gozama kentzea Senpereko aintzira eraikitzeko. Borroka gogorra bezain luzean parte hartu zuen lurra galtzea ez baitzuen batere gustukoa Honorine zenak. Doluminak!

JATETXEA-ERBETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TXAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK - OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ - PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

OLERKARIEI DEIALDIA

Hatsaren Poesia olerki bildumarako lanak aurkez ditzakete heldu nahiz haurrek

TTIPI-TTAPA

